

FINANTZA-TRESNEN ZORROA

(e)n, (e)ko aren

KONTRATUGILEAKAlde batetik **BANKUA:**

BANCO SANTANDER, S.A., IFZ: A-39000013 eta egoitza soziala Pereda Pasealekua, 9-12, Santander, Kantabrian (Espainia) dauzkana, Santanderreko Merkataritza Erregistroan inskribatua, 286 or. , 64. 286. orria, 64. folioa. 5. Sozietateen 5. liburua, insc. 1.- bere sukurtsalaren bitartez hemen kokatua: ; ekintza honetan jaun/andreak egokitasunez ordezkatuta, NAN , eta jaun/andrea, NAN , ahalduz izanda, -e(a)n emandako ahalmen-idatzian zehaztu bezala, egunean , jaun/andreak aurrean, zeina Notarioa den protokolo-ordenaren honako zenbakipean: .

Eta bestetik, finantza-tresnen zorroaren eta kontratu honen **TITULAR/BEZEROA(K):**

Izen-deiturak/Izen soziala:

NAN/Nortasun-agiria: Bizileku-herrialdea:

ID Kode Nazionala/Entitate juridikoko kode identifikatzailea (LEI):

Espainiako helbidea:

Helbide elektronikoa: Telefono-zenbakia:

Esku-hartze mota:

Ordezkarria:

Izen-deiturak:

NAN/Nortasun-agiria:

Ordezkapen-titulua:

Esku-hartze mota:

FINANTZA-TRESNEN ZORROA (FTZ)Zenbakia: **0049**

Erabiltzeko modua: (solidarioa edo mankomunatua)

LOTETSITAKO ESKUDIRUKO ABONU-KONTUA/KARGU-KONTUA (KKK)

Eskudirutako kontua(k), eurotan edo bestelako dibisa batean, zeinetan egingo diren kontratazioei eta inbertsio-produktuei buruzko operazioei dagokizkien likidazioak, Titularrek honako helburuetarako izendatutakoak izango dira: balore-kontuetarako, finantza-tresnetarako, zorro kudeatuetarako eta Finantza-tresnen Zorroaren menpeko Titularren kontratuetarako; loturiko eskudiruko kontua Finantza-tresnen Zorroaren Titularrena izan ezean, kontu horren Titularraren berariazko onarpena

beharko da¹. Kudeatutako zorroei lotuta, aurrez esandakoa inbertsio-zorroen kudeaketarako Titularrek izenpetu duten Kontratu Ereduan zehaztutakoaren galerarik gabe ulertuko da kudeatutako zorroari lotutako administratutako eskudiruko kontuari dagokionez.

BALORE-KONTUAK, FINANTZA-TRESNAK, KUDEATUTAKO ZORROAK ETA FINANTZA-TRESNEN ZORROAREN MENPEKO TITULARREN KONTRATUAK

BALORE-KONTUA (CCV)

Zenbakia: 0049

Lotutako eskudiruko kontua:

INBERTSIO KOLEKTIBOKO KONTRATUA

Zenbakia: 0049

Izen soziala . ISIN

Lotutako eskudiruko kontua:

ZORRO KUDEATUA

Zenbakia: 0049

Lotutako eskudiruko kontua:

Era berean, Kontratu honen formalizazioaz geroztik Titularrek kontratatu litzaketen gordailupeko, zaintzapeko edo erregistropeko inbertsio-produktu guztiak kontratu honen menpean geratuko dira, Bankuaren bezero izanda, Finantza-tresnen Zorroaren titularitate edo kotitularitate berean, eta erabiltzeko modu berberarekin.

KOMUNIKAZIOAK

Helbide elektronikoa:

Telefono-zenbakia:

Espainian gutuneria jasotzeko helbidea:

Bankua eta Bezeroa Oinarrizko Kontratuak zehaztutako baldintzetan eta baliabideen bitartez komunikatu ahalko dira.

Bankuak Bezeroari emango dizkio Kontratu honi eta haren gaia den jarduerari buruzko dokumentazio eta informazioa, baita balore-kontuei eta Finantza-tresnen Zorroaren menpeko kontratu eta finantza-tresnei buruzkoa, formatu elektronikoko euskarri iraunkorrean, beharren arabera bertara sartu, gorde edo erreproduzitzeko moduan. Horrela, Bankuak aipatutako dokumentazioa eta informazioa eman ahalko dizkio Bezeroari, posta elektroniko bitartez edo posta arrunta ez den beste baliabide batzuen bitartez, eta edozein kasutan, Bankuko Bezeroaren postontzian, zeinetara sartu daiteken unean Bankuak erabilgarri dituen urruneko banka zerbitzuen bitartez, batez ere, Bankuaren webgunean,

¹ Izendatu den lotutako kontuan, erabilpen-erregimen solidarioan jarduten duten titularrak Finantza-tresnen Zorroko Titularretatik ezberdinak badira, haietako edozeinek dagokion dokumentua sinatu beharko du aipatu den lotutako kontua izendatzeko. Kontuaren erabilpen-erregimena mankomunatua edo baterakoa bada, aipatu den lotutako kontua izendatuko duen dokumentua kontu horretako titular guztiek izenpetu beharko dute.

www.bancosantander.es eta Bankuaren mugikorreko aplikazioan. Helburu horretarako, Bezeroak urruneko banku-zerbitzuak onartu behar ditu (Banka Digitalaren Kontratua). Dena dela, Bezeroa txikizkari bezala sailkatuta egonez gero, dokumentazioa eta informazioa paperean jasotzea hauta dezake, kostu gehigarririk gabe. Horretarako, Bankuari idatzizko eskaera egin beharko dio.

Bezeroak Espainiako helbide bat eman beharko dio Bankuari, eta dagokion edozein aldaketa jakinarazi. Gertatzekotan, postazko komunikazioak helbide horretara bideratuko dira, eta Bankuak ez du ardurarik izango Bezeroak ez baditu dagokizkion komunikazioak jaso Espainiako helbide eguneratua ez komunikatzearen ondorioz.

Bankuak eta Titularrak/ek Kontratu hau Balore Merkatuari eta Inbertsio-zerbitzuei buruzko legerian eta inbertsio-alorrean aplikagarri den bestelako legerian aurreikusitako jokabide-arauei eta informazio-betekizunei atxikita burutzen dute, baita kontratuan bertan zehaztutako baldintzei ere. Honako merkataritza-kontratu honetan erantsita, Finantza-tresnen Zaintza eta Kudeaketarako Kontratu Ereduaren Baldintza Orokorrak eta Bereziak daude, Balore Merkatuari eta Inbertsio-zerbitzuei buruzko legerian ezarritakoari atxikita idatzidirenak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren kontrolpean, kontratu eredu gisa.

Finantza-tresnen Zaintza eta Kudeaketaren Kontratu Eredua aplikagarria izango da dokumentu honetan zehaztutako balore-kontu eta kontratuen arabera, unean Titularren titulartasuna duten gordailupeko, zaintzapeko edo erregistropeko inbertsio-produktu guztietarako, baita Kontratu honen formalizazioaz geroztik kontrata litzakenetarako, Bankuaren bezero izanda eta Finantza-tresnen Zorroan daukan titularitate edo kotitularitate eta erabilera-baldintza berberekin.

Bankuak, aurrez esandakoari dagokionez, dokumentu honetan identifikatutako Finantza-tresnen Zorroa ireki eta zenbakitzeari ekiten dio, zeinetan integratzen baitiren Titularraren/en izenean dauden eta aurreko parrafoan aipatutako Bankuaren gordailupeko, zaintzapeko edo erregistropeko inbertsio-produktuak, Finantza-tresnen Zorroak titularitate edo kotitularitate berebra mantentzen duelarik. Finantza-tresnen Zorroaren babesean emango dira balore eta finantza-instrumentuen gordailutza eta zaintza; baita Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IKE) eta bestelako erakundeen (besteak beste, arrisku-kapital entitateak edo inbertsio kolektiborako entitate itxiak) akzio edo partaidetzen erregistroa ere.

Ondorioz, Zaintza eta Kudeaketaren Kontratu Ereduaren bertsio berri honek dokumentu honetan zehaztutako Titularraren/aren aurreko Baloreen Zaintza eta Kudeaketaren Kontratu Eredua eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Kontratazioarako Irekiera Kontratuen klausulak ordezkatzeko ditu.

Finantza-tresnen Zorroak duen titularitate edo kotitularitate berarekin balore-kontu (CCV) bat irekitz gero, Kontratu honen baldintzetara atxikiz egingo da, dagokion Eranskina gehitzearen bitartez. Aipatutako balore-kontuari aplikagarriak zaizkion komisioak aipatutako Eranskinean zehaztutakoak izango dira, eta aurreikusi gabekoan, Kontratu honetan zehaztutakoa izango da aplikagarri.

Baldintzen onarpenak ez dakar aldaketarik mantentze-, kudeaketa- eta bitartekaritza-komisioetan dokumentu honetan zehaztutako Titularrak/ek Bankuan irekitako balore-kontuei egun aplikatu ahal zaizkien merkatuetan, zeinek baliozkotasuna mantenduko duten eta Finantza-tresnen Zorroarentzat aplikagarri izaten jarraituko duten. Baloreak beste entitate batera traspasatzeari eta zaintzari, erregistroari eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IKE) eta bestelako erakundeen akzio eta partaidetzen alta eta bajak izapidetzeari dagokizkien komisioei merkataritza Kontratu honi erantsitako Baldintza Partikularrak aplikatuko zaizkie.

Baldintzen onarpenak ez dakar berekin aldaketarik dokumentu honetan zehazten diren lotutako eskudiruko kontu, balore-kontu, zorro kudeatu eta kontratuentzat.

Kontratu honetan erabakitakoaren galerarik gabe, inbertsio-produktuei dagokienez Titularrek/ak agindutako operazio zehatzek, zeinen gordailutzea, zaintza edo erregistroa Finantza-tresnen Zorroan mantentzen den, Bankuak Titularrei/ari emandako Baloreen Merkatuko zerbitzu eta operazioen gehieneko Tarifen Liburuxka Informatiboan zehaztutako komisio eta gastuak sortuko dituzte. Liburuxka eskuragarri dago Bankuaren webgunean: www.bancosantander.es/tablon-anuncios.

Titularrak/ek berariaz aitortzen du(te) emandako dataren aurretik, inbertsio-zerbitzuen hornikuntzarako Oinarrizko Kontratuarekin eta inbertsio-zerbitzuen hornikuntzarako Informazio dokumentuarekin (MiFID liburuxkan) adostasunean, Bankuak, era antolatu eta ulergarrian, Bankuari eta eskaintzen dituen inbertsio eta laguntza-zerbitzuei buruzko informazioa eman diela, baita honakoei buruz ere: finantza-tresnak eta inbertsio-estrategiak, aginduen exekuziorako politika eta lehentasunezko exekuzio-zentroak, gastu eta kostu eratorriak, interes-gatazken kudeaketarako politika orokorra eta kontu orokorren mantenurako Bankuak hautatutako azpizaindariak. Honenbestez, Titularrak/ek inbertsio eta laguntza-zerbitzuen arriskuak ezagutzen ditu(zte), baita Kontratu honen arabera inbertitu dezaketen finantza-tresnenak ere; eta beraz, gauza d(ir)a inbertsioei buruzko arrazoizko erabakiak hartzeko. Aurrez aipatutako informazio guztia Bankuak Titularrei/ari emandakoa da, eta eskuragarri dago bankuaren webgunean www.bancosantander.es.

Kontratu honek Bezeroarekin aurretik goiburuan adierazitako Finantza-tresnen Zorroen kontua irekitzeko adostutako beste kontratu guztiak baliogabetzen ditu eta, Finantza-Tresnen Zorro horretan gertatu ahal izan den zenbaketa-aldaketak izan direnean ere, Bankuaren eragiketen edo eragiketa logistikoen ondorioz.

Bezeroak/ek eta Bankuak bere osotasunean ezagutzen dituzte Kontratua arautzen duten baldintzak, onartu egiten dituzte eta goiburuan adierazitako data eta lekuan formalizatzen dute Kontratu hau, zeina eman egiten den, alderdi bakoitzak kopia bana jasotzen duelarik.

BANCO SANTANDER, S.A.

Ahalordez

**FINANTZA-TRESNEN
TITULARRA(K)**

ZORROAREN

JAUNA/ANDREA

JAUNA/ANDREA

ERANSKINA**FINANTZA-TRESNEN ZAINZTA ETA ADMINISTRAZIO-KONTRATU EREDUAREN BALDINTZA
BEREZIAK****Komisioak — Balioen zaintza- eta kudeaketa-zerbitzua.***I. Balioen mantenua, zaintza eta administrazioa, kontuan egindako oharpenen bidez adierazita:*

Merkatu espainiarretako balio negoziagarrietatik: % Minimoa: euro. Errenta aldakorarentzat kalkuluaren oinarria eskudirua arabera erabakiko da, eta errenta finkoko baloreetarako oinarria haien balio nominala izango da.

Atzerriko merkatuetako balio negoziagarrietatik: % Minimoa: euro. Errenta aldakorarentzat kalkuluaren oinarria eskudirua arabera erabakiko da, eta errenta finkoko baloreetarako oinarria haien balio nominala izango da.

Balio ez-negoziagarrietatik: % nominalaren gainean. Minimoa: euro.

Kotizaziorik ez izatekotan, nominala hartuko da oinarritzat.

II. Titulu fisikoen mantenua, zaintza eta administrazioa:

Merkatu espainiarretako balio negoziagarrietatik: % nominalaren gainean. Minimoa: euro.

Atzerriko merkatuetako balio negoziagarrietatik: % efektiboaren gainean. Minimoa: euro

Balio ez-negoziagarrietatik: % nominalaren gainean. Minimoa: euro.

III. Inbertsio Kolektiboko Erakundeetako (IICak) akzio edo partaidetzen zaintza eta erregistroa.

Kontuen idatzietan (EFT eta SICAV) ordezkaturako Espainiako IICen akzio edo partaidetzen zaintza: % efektiboaren gainean. Minimoa: euro.

CNMVan erregistraturako atzerriko IICen akzio edo partaidetzen zaintza: % efektiboaren gainean. Minimoa: euro.

CNMVan erregistratuta ez dauden atzerriko IICen akzio edo partaidetzen zaintza: % efektiboaren gainean. Minimoa: euro.

Atzerriko IICen saldoen alta edo baja tramitatzea saldo edo posizioak erregistratu behar diren merkaturatzailea aldatzeagatik: % efektiboaren gainean. Minimoa: euro eragiketa bakoitzeko.

IV. Baloreak beste erakunde batera intsuldatzea:

Merkatu espainiarretako balio negoziagarrietatik: % . Gehienez euro.

Atzerriko merkatuetako balio negoziagarrietatik: % . Gehienez euro.

Balio ez-negoziagarrietatik: euro, balore-motaren arabera.

Hitzartutako komisioak balore-mota bakoitzari aplikatuko zaizkio (ezaugarri berdinak eta eskubide berdinak dauzkaten jaulkitzaile baten balore-multzoa). I., II. eta III. ataletan jasotakoak urteko oinarriko ehuneko gisa adierazita daude. Balioak urtebete baino gutxiagoz badaude gordailuan, aplikatu beharreko komisioa balore horiek gordailuan egondako egun-kopuruari dagokion parte proportzionala izango da. Gutxieneko zenbatekoa, halaber, baloreak gordailuan egondako egun-kopuruarekiko proportzioan aplikatuko da. Kalkulu-oinarria sortzapen-epealdian gordailuan egondako errenta aldakorreko baloreen eguneroko saldo efektiboen batez bestekoa izango da. Errenta finkoko baloreetarako, kalkuluaren oinarritzat hartuko da haien balio nominala. Aldizkako komisio hauek sei hilabeteko natural bakoitzaren amaieran likidatu eta ordainduko dira, edo gordailutza ezeztatzen den momentuan, dagokion proportzioan. Bestelako komisioak dagokion operazioa burutzen den egunean sortu, likidatu eta ordainduko dira.

IV. atalean jasotako komisioak ehuneko gisa emanak daude; gainera, gehieneko zenbatekoa ezarri beharra dago eta ezin da operazio bakoitzeko gutxienezko errenta ezarri. Kalkuluaren oinarria izango da, errenta aldakorreko baloreentzat, baloreek zuten balio eraginkorra traspasoa egin zen datan. Errenta finkoko baloreetarako, kalkuluaren oinarritzat hartuko da haien balio nominala. Komisio horiek dagokion operazioa burutzen den egunean sortuko, likidatu eta ordainduko dira.

Atzerriko merkatuetan dauden balore negoziagarrien tarifak berdin aplikatuko zaizkie balore nazionalak, baldin eta gordailuzain atzerriar baten zaintzapean jarri badira bezeroak eskatuta, edo honek egindako eragiketen betekizun bezala.

Komisioak – Merkatuetako bitartekaritza-eragiketak.

I. Bitartekaritza-eragiketak errenta aldakorreko baloreen merkatuetan:

Espainiako merkatuetan. Jasotzea, igortzea, burutzea eta likidatzea: % efektiboaren gainean.
Eragiketa bakoitzeko euro gutxienez.

Atzerriko merkatuetan. Jasotzea, igortzea, burutzea eta likidatzea: % efektiboaren gainean.
Eragiketa bakoitzeko euro gutxienez.

II. Eragiketak errenta finkoko baloreen merkatuetan:

Espainiako merkatuetan. Errenta finkoko baloreen salerosketa: % nominalaren gainean.
Eragiketa bakoitzeko euro gutxienez. Espainiar Zor Publikoaren eragiketei dagokizkionak izan ezik.

Atzerriko merkatuetan. Errenta finkoko baloreen salerosketa: % nominalaren gainean.
Eragiketa bakoitzeko euro gutxienez.

Eragiketatzat hartuko da balore mota bakoitzarengatik egindakoa, jatorria agindu bakarrean izatea gorabehera. Balore-mota deritzo ezaugarri berdinak eta eskubide berdinak dauzkan jaulkitzaile baten balore-multzoari. Tarifa hauek independenteak dira, euroa ez diren dibisen kanbioengatik egoki diren tarifetatik ezberdinak. Tarifei dagokienez, dagozkion zergak kargatuko dira.

Hemen itundutako komisioetaz gain, inbertsio-produktuei dagokienez titularrak agindutako eragiketa zehatzek Bankuak Bezeroari/ei emandako Baloreen Merkatuko zerbitzu eta eragiketen gehienezko tarifen Liburuxka informatiboan zehaztutako komisio eta gastuak sortuko dituzte. Liburuxka eskuragarri dago Bankuaren webgunean: www.bancosantander.es/tablon-anuncios.

FINANTZA-TRESNEN ZAINZA- ETA ADMINISTRAZIO-KONTRATU EREDUAREN BALDINTZA OROKORRAK

LEHENA.- Kontratuaren xedea

1.1.- Kontratuaren xedea

Kontratu honek arautzen du zer baldintzatan Bankuak, zuzenean edo Grupo Santander-en entitateen edo hirugarrenen entitateen bitartez, emango dituen zaintza- eta kudeaketa-zerbitzuak Bezeroaren inbertsioa jaso duten eta Baloreen Merkatuko legediari atxikitzen zaizkion inbertsio-produktuetan, zeinen zaintza, gordailutza, erregistroa eta administrazioa Bankuaren ardurapean utzi diren.

Horretarako, Kontratu honek Bankuaren eta Bezeroaren eskubide eta betebeharrak zehazten ditu, baita zerbitzuen ezaugarriak eta irismena zein zerbitzu horiek jasotzeko baldintzak ere. Honako Merkataritza-kontratu hau eredu-kontratua da, Baloreen Merkatuari eta Inbertsio Zerbitzuei dagokizkion legediari atxikita erredaktatua.

1.2.-Ardurarako, baimena eskatzeko eta ikuskatzeko betebeharra

Bankuak zerbitzuak emango ditu zintzotasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez jokatzuz, Bezeroaren interesik onenean, Baloreen Merkatuari eta Inbertsio Zerbitzuei dagokizkion legediari jarraikiz.

Kontratu hau eta honen xede den jarduera Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalak (BMBN) gainbegiratu du. Banco Santander, S.A. BMBNk baimenduta dago inbertsio-zerbitzuak eta inbertsiorako-laguntza zerbitzuak emateko. BMBNren kontakturako datuak honakoak dira: Edison kalea, 4, 28006-Madril, Espainia; Telefono-zenbakia: 902 149 200; webgunea: www.cnmv.es.

Banco Santander, S.A. Espainiako Bankuan 0049 zenbakiaz erregistratutako kreditu-erakundea da, eta hark gainbegiratzen du. Espainiako Bankuarekin harremanetan jartzekodatuak honakoak dira: Alcalá kalea, 48, 28014-Madril, Espainia; Telefono-zenbakia: 913 385 000; webgunea: www.bde.es.

1.3. Berariazko kontratua

Kontratu hau formalizatzen da Bankuaren eta Bezeroaren arteko Inbertsio Zerbitzuak Emateko Oinarrizko Kontratuan («Oinarrizko Kontratua») jartzen duenari atxikiz.

Kontratu honetan besterik esan ezean, Kontratu honen xede diren zerbitzuak ematerakoan, Oinarrizko Kontratuan zehaztutakoa aplikatuko da. Kontraesan edo desadostasunen bat izanez gero, Kontratu honetako baldintza espezifikoak gailenduko dira.

1.4.- Bezero profesionalak eta kontrako alderdi hautagarriak diren bezeroak

Baloreen Merkatuaren eta Inbertsio Zerbitzuen legediaren arabera, Bezeroa bezero profesional edo kontrako alderdi hautagarri bezala sailkatuta badago, Bankuak zerbitzuak emango ditu Oinarritzko Kontratuan egoera horri buruz berariaz xedatutakoari jarraiki.

BIGARRENA.-Finantza-tresnen zorroa eta eskudiruko kontu lotetsia

2.1.- Finantza-tresnen zorroa

Bankuak Bezeroari ematen dio bere inbertsioa jaso duten inbertsio-produktuen zaintza eta administrazio zerbitzua, Kontratu honetan zehaztutakoaren arabera. Zerbitzu hau Finantza-tresnen Zorroari ematen zaio, zeina dokumentu honetan izendatuta datorren eta Kontratu honekin ados dagoen Bezeroaren izenean irekitzen den; baita, dagokionean, Bezeroak Finantza-tresnen Zorroari atxikita formalizatzen dituen balore-kontu eta kontratuei ere.

Bankuak Bezeroaren titularitatea duten inbertsio-produktuak zainduko ditu, eta Finantza-tresnen zorroan islatuko ditu. Aipatutako produktuak honakoen bidez ordezkatu eta erregistratuak izan daitezke: tituluak, kontuko idatzoharrak, erregistro banatuen teknologian oinarrituriko sistemak edo legedi aplikagarriak baimendutako beste edozein ordezkapen edo erregistrorako baliabide, zeinaren gordailutza, zaintza, erregistroa edo administrazioa Bankuari eman zaion. Bezeroak haiekiko eskubidea egokitasunez frogatu beharko du.

2.2.- Eskudiruko kontu lotetsiak

Bezeroak Finantza-tresnen Zorroari lotetsitako eskudiruko kontu bat edo gehiago izendatu beharko ditu, zeinetan egingo diren kontratazioei eta inbertsio-produktuen eragiketei dagokizkien likidazioak, eskudiruko kontu horren/horien titularraren/titularren berariazko onarpenaz.

Bankuak lotutako kontura abonatuiko ditu salmenten zenbatekoei edo itzulera, interes, esku-dirutako dibidendu, ekarpen nominalaren eta biribilketen itzuleratik edo zaintzapean, gordailutzan, erregistratuta edo administratuta dauden inbertsio-produktuetatik eratorritako beste edozein diru-sarrera.

Honako hauei dagokizkien zenbatekoak kargatuko ditu Bankuak lotutako kontutik:

- Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IIC) harpidetza, akzio erosketa, bonuak, harpidetza eskubideak edo Bezeroak inbertitzea erabakitzen duen beste edozein inbertsio-produktu.
- Inbertsio-produktuen harpidetza, truke eta konbertsioak.
- Inbertsioetatik eratorritako komisioak, gastuak eta zergak.

Lotutako kontuen titularrek, Finantza-tresnen Zorroko titularretatik ezberdinak izanez gero, berariaz baimendu beharko dute, beren sinaduraren bitartez, Finantza-tresnen Zorroan mantentzen diren inbertsio-produktuetatik eta finantza-tresnen Zorroko titularretako bakoitzak egindako eragiketetatik eratorritako kargu eta bonuak beren kontuan islatu daitezela; hori guztia kontu horren titularrek itundutako erabilera-erregimenaren (solidario edo mankomunatua) galerarik gabe.

2.3.- Funts eta inbertsio-produktuen hornidura. Konpentsazioa eta bermea atxikitzea

Bezeroa derrigortuta egongo da bere eragiketak gauzatzeko beharrezkoak diren eskudirua eta inbertsio-produktuak ematera, baita horien likidazioa geroago gertatzen denean ere.

Bankuak komisio, gastu eta zergak, baita inbertitutako zenbatekoak ere, Finantza-tresnen Zorroari lotutako eskudiru kontuetara kargatuko ditu; eta saldoa nahikoa ez bada, Bezeroak Bankuan dituen beste edozein eskudiruko kontutara. Konpentsazio-ahalmen hori Bezeroak hirugarren pertsonekin batera dauzkan kontu eta gordailuetara ere zabalduko da, eskubideak gauzatzeko eta funtsak erabiltzeko modua bereizigabea bada, hau da, euren artean solidarioa.

Aipatutako kontu guztietako saldoa nahikoa ez balitz, Bankuak egoera jakinaraziko dio Bezeroari, eta epemuga bat jarriko dio bere betebeharrak asetzeko. Epemugara iritsi eta betebeharrak ase gabe egonez gero, zenbateko horiek konpentsatzeko, Bankuak Bezeroaren inbertsio-produktuak saldu ahaliko ditu, betiere Bezeroaren Bankuko posizioetan badaude eta, ahal den neurrian eta zentzu orokorrean, orden honetan: 1) Errenta aldakor nazional edo nazioartekoa; 2) Inbertsio Kolektiboko Erakundeetako eta entitateetako partizipazio edo akzioak; 3) Errenta Finko publiko edo pribatua; 4) Bestelako inbertsio-produktuak, merkatuko likidezia gehien dutenetatik gutxien dutenetara.

Era berean, Bankuak, zor zaizkion zenbatekoen eta dagokizkion kalte-ordain eta itzuleren berme bezala, Bezeroak bere Bankuko posizioetan dituen inbertsio-produktuak bermean atxiki ditzake, Konkurtso legeak zehaztutako lehentasuna jasotzen duelarik.

Bankuak Bezeroari jakinarazten dio, Baloreen Merkatuari eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko legeriaren arabera, aldeko finantza-bermearen eskubide bat dagoela, Merkatuko kideen, kontrapartida zentralako entitateen eta eragiketak likidatzeko beharrezkoak ziren eskudirua edo inbertsio-produktuak aurreratu dituzten kontrapartida entitate zentral eta gordailuzain zentralen aldekoa. Bermeak inbertsio-produktuen prezioa, eskudirutako zenbatekoa eta isun edo zigorren zenbatekoa barne hartzen ditu.

Era berean, Bankuak Bezeroari jakinarazten dio Azpi-jagoleen bidezko inbertsio-produktuen zaintzaren esparruan ohikoa dela Azpi-jagoleek beren zerbitzuak emateko eskatzen duten baldintza baloreen atxikipen-, berme, burutzapen- edo erabilpen-eskubideak aitortzea, betebeharrak ekonomikoak urratzearen aurrean bere arriskua bermatzeko modu gisa.

Baloreen, finantza-tresnen edo inbertsio-produktuen zorpeko bat gertatuko balitz, Bezeroaren aldetik saltzeko edo itzultzeko agindu bat jaso ostean, bere erantzukizunekoak izango dira Bankuak jasan litzakeen kalte guztiak, bereziki likidazio eta baloreen konpentsaziorako entitateak berrerosketa eragiketa burutuko balu. Kasu horretan, kalte-galeren zenbateko ekonomikoa, behar bezala dokumentatuta, lotutako kontuan kargatuko da, Bankuak atal honetan zehaztutakoaren arabera jokatzeko aukera duelarik.

Bankuak Bezeroari jakinarazten dio Bankuak zorpeko inbertsio-produktuen erosketa- edo harpidetza-aginduak ukatu ahaliko dituela. Bezeroak saltzeko/dirua itzultzeko eta erosteko/harpidetzeko hainbat agindu jarraian emango balitu, zeinak saltzetik/dirua itzultzetik edo erostetik/harpidetzetik sortutako

eskudiruan kargua dutela egin diren, haiek burutzeko beharrezkoa izango da zenbateko horiek edo eskuratutako inbertsio-produktuak aurrez erregistratzea, gero besteretu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Utzitako edo kudeatutako finantza-tresnen zaintza.

Bankuak zainduko ditu Tresnen Zorroan dauden Bezeroaren inbertsio-produktuen titulu fisikoak, eta haien inskribatze eta erregistroa egin eta mantenduko ditu beste era batera errepresentatuta egonez gero, legeria aplikagarriarekin bat etorritz.

Inbertsio-produktuak tituluen bitartez edo bestelako euskarri fisiko baten bitartez ordezkaturak egonez gero, Bezeroak Bankuari entregatuko dizkio. Tituluak beste Entitate batean gordeta baleude, Bezeroak Bankuari emango dizkio aipatutako tituluen traspasorako beharrezkoak diren dokumentuak.

Finantza-tresnak kontuko idazpenen bitartez ordezkutzen badira, Bankuak dagokion kontabilitate-erregistroan edo partaide/akziodunen erregistroan Bezeroaren aldeko inskripzioa egiteko konpromisoa hartzen du. Beste Erakunde bateko kontabilitate-erregistroan erregistratutako inbertsio-produktuak badira, eta hala badagokio, Bezeroak Banku bereko edo zerbitzua kontratatuta duen erakundearen erregistroetara ekartzeko eskaera egingo du.

Finantza-tresnak erregistro banatuetan oinarritutako teknologiaren bitartez ordezkutzen badira, Bankuak dagokion erregistro banatuen sisteman Bezeroaren aldeko inskripzioa sustatzeko konpromisoa hartzen du. Inbertsio-produktuak beste Entitate baten bitartez eta Bezeroaren kontura erregistro banatuko sisteman idatzita badaude, Bezeroak eskaera egingo du Bankuaren bitartez haien zaintzarako transferituak izan daitezen, erregistro banatuan erregistratutako transferentziaz, legeri aplikagarriari jarrai.

Bezeroak Bankuaren bitartez egindako eragiketak burutzean eskuraturiko inbertsio-produktuak, besterik esan ezean, Bezeroaren Finantza-tresnen Zorroan islatuta geratuko dira haien gordailutza, zaintza, erregistro eta kudeaketarako. Horrek ez dakar inbertsio-produktuetatik eratorritako eskubideak bere osotasunean eskuratzea, zilegizko titular gisa aintzat hartzen den pertsona bakarria kontabilitate-erregistroko eserlekuetan zilegituta agertzen den pertsona baita, edo erregistro banatuko sisteman agertzen dena, aginduaren likidazioaren ondoren eta Merkatuko arauen arabera.

Gordailutza, zaintza, erregistroa eta kudeaketa jasoko duten inbertsio-produktuak dira, une bakoitzean Bezeroak Finantza-tresnen Zorroan mantentzen dituenak, edo gauzazko dibidendoen ordainketak, baita bertan mantentzen diren inbertsio-produktuen harpidetzen, trukeen edo konbertsioen emaitzak ere. Kasu guztietan, Bankuak zaintza eta administrazio zerbitzuak emango ditu inbertsio-produktuak haren zaintzan geratzen diren unetik aurrera.

Bezeroa ez badago eragiketekin, kitapenekin edo salmentekin ados, informazio hori jasotzen duenetik hamabost (15) eguneko epea izango du Bankuari jakinarazteko. Ez badio jakinarazten, Bezeroa ados dagoela ulertuko du bankuak eta ez da atzera bueltarik egongo.

LAUGARRENA.- Azpizaindariak eta kontu globalak (edo «Ómnibus kontuak»). Zerbitzua eskuordetzea

4.1.-Azpizaindariak

Finantza aktiboen zaintza- eta kudeaketa-zerbitzua emateko, azpizaindariak erabili ditzake Bankuak, zerbitzu eraginkorra emateko beharrezkoa bada.

Bankuak hirugarrenetan eskuordetu ahalko du inbertsio-produktuen zaintza- eta kudeaketa-zerbitzua edo erregistro indibidualizatua, baina Bankuak zaintza eta kudeaketari dagokionez bere erantzukizuna mantenduko du Bezeroaren aurrean legeria aplikagarirari jarrai, Kontratu honetan eta Oinarrizko Kontratuan zehaztutakoarekin bat.

Bankuak azpizaindariak hautatuko ditu aktiboak bereak balira izango lukeen arreta berberarekin, eta ziurtatuko du ospe eta izen oneko entitate finantziarioak direla, dagokion arduraz jardunez azpizaindarien ebaluazioan, hautapenean, kontratazioan, mantenimenduan eta kontrolean, horretarako betekizun eta irizpide oso zorrotzak jarraituz, kaudimenari, arrisku operatibo edo legalari eta zerbitzuaren kalitateari dagokionez. Bankuak Bezeroari informazio osoa, eguneratua eta zehatza emango dio Bankuak kontu globalak mantentzeko hautatutako azpizaindariei, azalduz zein diren jatorrizko herrialdea, kreditu-kalifikazioa, aktibo eta arrisku espezifiko eratorrien sagregazioari buruzko betekizun eta arauak eta, kasuan kasu, arrisku espezifikoak, azpizaindari bakoitzaren kontu globalei dagokienez. Azpizaindariei buruzko informazio hau eskuragarri dago Bankuaren webgunean www.bancosantander.es/es/espacio-mifid.

4.2.-Kontu globalak (edo «Ómnibus kontuak»)

Merkatu nazional zein nazioartekoetan, inbertsio-produktuekin burututako eragiketen kasuan, ohiko praktika bada, kontu globaletan sartuko dira inbertsio-produktuak («Ómnibus kontuak» ere deituak). Azpizaintza batean zabalitzen dira kontu horiek eta Bezero anitzen finantza aktiboak zaintzen dira bertan. Bankua edo kasurako izendaturiko hirugarren bat izango da kontu global horren titularra, Bezeroaren kontura.

Bankuak eta azpizaindariak arduratuko dira Bezeroaren jabetzako inbertsio-produktuak ondo identifikatzeko beharrezko neurriak hartzeaz, Bankuaren beraren eta azpizaindariaren finantza-aktiboengandik bereizita egon eta nahas ez daitezen. Bezero bakoitzaren inbertsio-produktuen eta eragiketen egoera ezagutzeko, beharrezko erregistroak mantenduko dituzte Bankuak eta azpizaintza erakundeek.

Bezeroak bere inbertsio-produktuak beste kontu batean gordetzea eska dezake, kontu global baten orde. Horretarako, Bankua eta igorleak zerbitzu hori eskaintzeko ahalmena eduki beharko dute eta Bezeroak eragiketa horretatik eratorritako kostuak ordaintzeko gaitasuna izan beharko du.

Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IIC), arrisku-kapital entitateen eta bestelako inbertsio kolektiboko entitate nazional eta atzerriarren akzio eta partizipazioak ere, aurrez azaldutako arrazoiengatik, Bezeroaren kontura kontu global ireki batean erregistra daitezke Bankuaren edo helburu horretarako izendatutako hirugarren baten («Ahaldunordearen») izenean dauden akziodun/partaideen erregistroaz arduratzen den entitatean, edo azpizaindaritza batean Bankuaren edo helburu

horretarako izendatu den hirugarren baten izenean irekitako kontu global batean. Ahaldunorde/azpizaindariak Bezeroaren akzio eta partaidetzen erregistroa izan beharko du, baita horien balioarena ere. Era berean, Ahaldunordeak/azpizaindariak beharrezko neurriak hartuko ditu Bezeroaren jabetzako akzio eta partaidetzak ondo identifikatuta egon daitezen, eta Bankuaren eta azpizaindariaren finantza-aktiboengandik, edo Ahaldunordeak/azpizaindariak beste bezero batzuen kontura erregistratuta dituen akzio eta partaidetzetatik bereizita egon eta nahas ez daitezen.

Inbertsio-produktuak kontu globalak erabiliz zaintzeko modu horrek berekin ekar dezake, aplika daitekeen legeriak ezartzen duenari jarraiki, inbertsio-produktuaren administratzaile edo jaulkitzailearen, dagokion erregistro-sistemaren eta, hala badagokio, tokiko agintari eskumendunen aurrean, inbertsio-produktuen titulartasuna eta barne hartutako eskubideen gauzapena kontu globalari aitortzea (eta ez Bankuko bezeroari) eta horrek zenbait ondorio izan ditzake inbertsio-produktuen gaineko operatiba arruntean.

Bezeroak bere jabetzako inbertsio-produktuen gainean dauzkan eskubideak gauzatu ahal izateko, Bankuak, kasuaren arabera, hark egoki diren atzerriko tresnen inguruan ematen dizkion aginduak jakinaraziko dizkio azpizaindariari, Ahaldunordeari edo zuzenean partaide/akziodunen erregistroaz arduratzen den entitateari, eta eskudirua kargatu edo ordainduko du, edo eragiketa bakoitzeko baloreak bere kontuan egiaztatuko ditu. Kontu globalen bidez zaindutako inbertsio-produktuei dagozkien eskubide politikoak gauzatzeko, Bankuak Bezeroak bidalitako argibideak jaso eta, kasuaren arabera, azpizaindariari, Ahaldunordeari edo zuzenean partaide/akziodunen erregistroaz arduratzen den entitateari helaraziko dizkio.

Berariaz jakinarazten da lehen aipatutako eskubide politikoen gauzatzeak, esaterako Bezeroaren bozka-argibideak atzerriko baloreen jaulkitzaileek deitutako batzar nagusietara transmititzeak, Bankuaren aldeko komisio bat sortu dezakeela, Tarifen Liburuxkan zehaztutakoaren arabera, zeina Bezeroari jakinaraziko zaion likidazioa gertatu aurretik.

4.3.-Nazioarteko azpizaintzaileen eta kontu globalen arriskuak

Halaber, Bankuak Bezeroari jakinarazten dio kontu globalak inbertsio-produktuen zaintzarako erabiltzeak berekin ekar dezakeela barne hartutako eskubideen gauzape osoa eta zehatza aldi baterako eskura egotea aldi baterako mugatzeko aukera, baita balioa galtzea edo inbertsio-produktuak galtzea ere, operatiba honetatik eta produktuak eta horien zaintza hirugarren Estatu bateko ordenamendu juridikoari atxikita geratzetik eratortzen diren arrisku espezifikoaren ondorioz, baita Europar Batasunetik kanpo ere, hori guztia ondoren jasoko diren terminoetan. Bezeroek Bankuak irekitako kontuan gordailuan utzitako inbertsio-produktuen edo produktu horien operatibari atxikitako funtsen gainean dituen eskubideak, jabetza eta kaudimen-ezari dagokienez, ezberdinak izan daitezke Europar Batasuneko Estatu Kide bateko legeriari atxikita egonez gero aplikatu beharrekoekin alderatuta.

Kontu globalen erabileratik eratortzen diren aipatutako arriskuak kontu globalaren titularren kaudimen-ezaren kasuan etor litezke (Bankuarena edo izendatutako azpizaintzaile edo Ahaldunorde batena, alegia). Kasu horretan, kaudimen-ezarpenari buruzko prozesuari aplika dakioken legeriak

ezartzen duenaren arabera, gerta liteke azaldutako segregazio-neurriak Titularraren inbertsio-produktuak identifikatzeko, porrotean eroritakoaren/kaudimenik ez duenaren ondaretik bereizteko eta jabeari itzultzeko edo beste zaintzaile edo azpizaintzaile bati berehala intsuldatzeko nahikoak ez izatea, baldin eta: (i) aipatutako legediak inbertsio-produktuen titulartasun fiduziariora aitortzen ez badu (Bankuarena edo nazioarteko azpizaintzaile edo Ahaldunorde batena izan, bere izen propioan baina beste norbaiten onerako, kasu honetan bezeroen onerako) eta, horren ondorioz, dagokion Agintaritzak kontu globalean gordailuan utzitako inbertsio-produktuak hirugarrenenak ez direla ulertzen badu, kaudimenik ez duen erakundeenak baizik, kontuaren titularra denez; (ii) kaudimengabezia aitortzeko unean, erakunde kaudimengabeak (kasu honetan, azpizaindariak) bere izenera tokiko erregistro-sisteman bezero guztientzat zaintzan dauzkan inbertsio-produktu guztien saldoa estaltzeko adina erregistratuta ez badauzka eta, modu horretan, bakoitzari dagokiona itzultzeko modurik ez badu, benetan berreskuratu ahal izango den kopurua kaudimen eza arautzen duen arauak ezarritako dagoen saldoaren banaketari eta kredituen aitorpenari eta lehentasunari buruzko arauen arabera izango da.

Arrazoi berdinengatik, eta inbertsio-produktuei eta bere zaintzari eta kaudimen-ezari buruzko prozesuari aplikatu dakiekeen legeriak ezartzen duenaren arabera, egoera konpontzen den bitartean eta bezeroaren eskubidea aitortzen den arte (denboran atzeratu liteke-eta), kaudimen-ezak Bezeroari inbertsio-produktuak berezkoak dituen eskubideak aitortu eta gauzatzea galaraz diezaioke, esate baterako erreklamazio-ekintzak burutzea; horretarako beharrezkoa izan daiteke kontu globalaren titularraren laguntza lortzea (eta hori ukatu egin daiteke, denboran atzeratu daiteke edo gerta daiteke teknikoki ezinezkoa izatea ere).

Azkenik, Bankuak Bezeroari jakinarazten dio, Europar Batasuneko legeriari jarraiki, kreditu-erakundeetan irekitako kontuetako bezeroen inbertsio-produktuen gordailuek berme-sistemen babesa dutela, Estatu Kide bakoitzeko legeriek ezarritako baldintzetan eta mugetara arte. Europako Batasuneko herrialdeetatik kanpo, litekeena da gordailu horiek ez egotea berme-sistema baliokide edo analogoen bidez babestuta.

Arrisku horien jakitun, Bankuak Bezeroari jakinarazten dio, halaber, bezeroen aktiboak babesteari buruzko Espainiako legeriari jarraiki, Bankuak ez duela bermatzen eta ez duela inbertsio-produktuak itzultzeko betebeharririk izango, azpizaindariaren porrota edo kaudimengabetasuna etorriz gero; bere ardura izango da, azpizaindarien erabilerari eta kontu globalen erabilerari dagokionez, azpizaindarien ebaluazioan, aukeraketan, kontratazioak, mantentzean eta kontrolean behar bezalako prestasuna jartzea (berez ala izendatutako azpizaindari baten bitartez), horretarako kaudimen, operazio- edo legezko arrisku eta zerbitzuaren kalitateari buruzko irizpide eta betekizun oso zorrotzak jarraituz, eta bezeroak modu argi, osatu eta ulergarrian inbertsio-produktuak kontu globalen bitartez Bankuaren ziantzapean uzteko erabakiarekin onartzen dituzten arriskuak. Bezeroak ez baditu balizko arrisku horiek edo kontu globalen funtzionamendua bere gain hartu nahi, ez du egingo inbertsio-produktuak kontu globaletan gordailutzea edo erregistratzea eskatzen duen eragiketarik.

4.4.- Zerbitzua eskuordetu

Bankuak Bezeroari jakinarazten dio CAECIS BANK SPAIN, S.A.U.-ren esku uzten duela Bezeroak, kontratu honi jarraiki, Bankuari agindutako nazioarteko balioen zaintza-zerbitzua; hortaz, kontratua sinatzen den egunetik aurrera, CAECIS BANK SPAIN, S.A.U. izango da aipatutako nazioarteko balioen zaintza-zerbitzua burutuko duena. Nazioko balioen kasuan, Bankuak eskainiko dio Bezeroari zaintza-zerbitzua eta Finantza-tresnen Zorroak zaindu eta kudeatutako nazioko balio horien banakako erregistroa.

CACEIS BANK SPAIN, S.A.U., egoitza soziala Club Deportivo Pasealekua¹, 4. Eraikina **helbidean** duena, eta Madrilgo Merkataritza Erregistroan izena emandakoa, 7100 orrian 2. Folioan, 261. Tomoan, 8. Atalean, 1. inskripzioa. CAECIS BANK SPAIN, S.A.U. finantza-tresnen zaintzarako baimendutako kreditu entitatea da, Espainiako legeei jarraiki behar bezala eratua, Espainiako Bankuaren ikuskaritzari atxikita eta haren erregistroetan inskribatua, 0038 kodearekin. CAECIS BANK SPAIN, S.A.U., Kreditu Erakundeetako Gordailuak Bermatzeko Funtsera atxikita dago, berariazko erregulazioan ezarritako terminoetan.

Bankuak Bezeroari jakinarazten dio ALLFUNDS BANK, S.A.U.-ren esku uzten duela kotizatu gabeko Inbertsio Kolektiboko Erakundetako (IKE), arrisku-kapitaleko entitateetako eta izaera itxiko beste inbertsio kolektiboen entitateetako akzio eta partaidetzak zaintzeko zerbitzua, entitate horretan irekitako kontu globalen bitartez entitate horrek azpizaindari lana egiten duenean, halamoduz non Kontratua sinatzen den dataz geroztik, ALLFUNDS BANK S.A.U. izango den aipatutako akzio eta partaidetzen zaintza zerbitzua emango duena.

ALLFUNDS BANK, S.A.U., egoitza soziala: Padres Dominicos Kalean, 7., 28050, Madril, IFZ: A-41001371, Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatua. ALLFUNDS BANK SPAIN, S.A.U. finantza-tresnen zaintzarako baimendutako kreditu entitatea da, Espainiako legeei jarraikiz behar bezala eratua, Espainiako Bankuaren ikuskaritzari atxikita eta haren erregistroetan inskribatua, 0011 kodearekin. ALLFUNDS BANK, S.A.U., Kreditu Erakundeetako Gordailuak Bermatzeko Funtsera atxikita dago, berariazko erregulazioan ezarritako terminoetan.

Aipatutako inbertsio-produktuen zaintzaren eskuordetzak ez dakar berekin inolako aldaketarik Kontratu honetan hitzartutako baldintzetan. Eskuordetzeak ez du Bankua zaintzatik eta kudeaketatik eratorritako erantzukizunetik salbuetsiko eta ez ditu Bankuak Bezeroaren aurrean dituen eskubide eta betebeharrak ere aldaraziko. Halaber, aipatutako eskuordetzeak ez dio Bezeroari gastu gehigarririk edo hitzartutako komisioen aldaketarik ekarriko.

Bezeroari jakinarazten zaio Bankuak ordainsaria emango diela CAECIS BANK SPAIN S.A.U. eta ALLFUNDS BANK, S.A.U. eskuordetutako zaintza zerbitzuengatik, Bezeroarentzako inolako gastu gehigarririk gabe.

Halaber, Bankuak Bezeroari jakinarazten dio Espainiar lurraldean helbideratutako edo finkatutako sozietate kudeatzaile baten eta Bankuaren arteko hitzarmenak hala zehazten duenean, Espainian eratutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IIC), arrisku-kapitaleko entitate edo izaera itxiko beste edozein inbertsio kolektiboko entitateen akzioei eta partaidetzei dagokienez, Bankuaren izenean dauden partaide/akziodunen erregistroaz arduratzen den entitateko, edo kasu honetarako izendatutako hirugarren baten partaideen erregistroan agertu ahal izango dela, Bezeroaren kontura.

Kasu horretan, Bankuak partaideak identifikatzeko erregistroa banaka egingo du, bere saldoarekin eta partaidetzen balioarekin, legeria aplikagarria jarraituz.

Bezeroak atal honetan hitzartutakoa ezagutu, onartu eta berariaz baimentzen du.

BOSTGARRENA.- Zaintzapeko finantza-tresnen kudeaketa

Bezeroak baimena ematen dio Bankuari inbertsio-produktuen gordailutza, zaintza edo erregistroaren administrazioan ohiko funtzionamenduak berezkoak dituen ekintza eta eragiketa guztiak egiteko, aipatutako inbertsio-produktuei dagokizkien eskubideak gordetze aldera, legeria aplikagarria jarraituz. Bankuak, egoki diren argibide zehatzak jasoko ditu Bezeroarengandik.

Aipatutako eragiketen artean, Bankua honakoez arduratuko da: a) dagokizkion interesak, kupoiak, errendimenduak edo dibidenduak kobratzeaz, edo nagusiez salmenta edo diru-itzultze partziala edo amortizaio osoa gertatuz gero, beharrezkoa balitz tituluak aurkeztuz edo emanez, eta egoki denean, dagokion inskripzioaren ezeztapena edo erregistorko baja; b) derrigorrezko eragiketez arduratzeaz, esaterako tituluen aurkezpena truke, aldaketa edo ordezkapenean; kapital gehiketa eta murrizketagatik zigorak, dibidendo pasiboen edo dagokizkion kapital deien ordainketa, aurrez helburu horretarako funtsak jasoz, derrigorrezko salmentak, kapital-hedakuntza liberatuak etab.; c) Bezeroa jakinarazteaz borondatezko edo berraztertze eragiketez, egoki diren argibideak eskatuz, zeinak Bankuaren eskutara iritsi behar diren, gutxienez, eragiketaren burutzea baino (2) egun baliodun lehenago (dagokionean, negoziaketarako (2) egun baliozko kotizatzen duten Merkaturik), zehaztutako epemugen barnean burutu daitezen; hala ez balitz, Bankuak baimena du eskubide horiek saltzeko eskudiruzko ordainketa duten baloreen harpidetzetara, negoziagarriak balira eta Merkaturik balego, edo doako esleipeneko balore berriak jasotzera, soberako eskubideen segidako salmentadunak, jasotzeko ere, hori guztia Bezeroaren interes hoberako bada: Bankuak harpidetza-eskubidea ez saltzea erabakitze eskubidea du eskubide horien transmisioaren zenbatekoa Merkaturik ordaindu beharko lituzkeen tasa eta kanonen kostuak baino txikiagoak direnean.

Bankua ez da erantzule izango Bezeroari lepora dakioken edozein akats edo hutsegiterengatik, honek garaiz eta era egokian zuzentzen ez badu.

Bankuak bere gain hartzen ditu aurrez aipatutako betebeharrak, aipatzen dituen eragiketei dagokienez, betiere inbertsio-produktuaren erakunde jaulkitzaileak edo kudeatzaileak modu ofizialean argitaratzen baditu eta, egoki denean, azpizaindariak, ahalduordeak edo partaide/akziodunen erregistroaz arduratzen den entitateak behar bezala jakinarazten badizkio. Bestelako kasuetan, Bezeroak Bankuari ohartarazi beharko dio, jakin dezan, eta egoki diren jarraibideak aginduz.

SEIGARRENA.- Inbertsio-produktuak erabiltzea, transmititzea eta itzultzea.

6.1.- Bezeroaren inbertsio-produktuen erabilera

Bankuak ez ditu erabiltzen Bezeroen inbertsio-produktuak zeinen gordailutza, zaintza, erregistroa eta kudeaketa bere zaintzapean utzi diren bere konturako finantziario-eragiketerarako.

Dena dela, Bankuak bere edo beste bezero baten kontura erabili ahalko ditu Bezeroak emandako inbertsio-produktuak, baita aipatutako produkuen baloreen finantziazioari buruzko akordioak ezarri ere, betiere Bankuak aurrez Bezeroarengandik berariazko adostasuna idatziz jasotzen badu, zeinetan zehaztu beharko diren Bezeroaren baimena, Bankuaren betebeharrak eta erantzukizunak (haien artean Bezeroak jasotzen duen ordainsaria bere inbertsio-produktuak mailegatzearen), itzultzearen baldintzak eta lotutako arriskuak.

6.2.- Inbertsio-produktuak transmititzea eta itzultzea

Inbertsio-produktuak honela transmitituko dira: (i) tituluen edo bestelako euskarri fisikoen bidez ordezkaturata badaude, haien ematearen bitartez; (ii) kontuko ohartzapenen bidez ordezkaturata badaude, kontabilitate-transferentzia bitartez; (iii) erregistro banatuen teknologian oinarrituriko sistemek ordezkatzeko badituzte, erregistro banatuen erregistratutako transferentzia bitartez.

Inbertsio-produktuen transferentziaren zilegitasuna eta haiengandik eratorritako eskubideen gauzatzea, edo eskubide erreal mugatuena edo haieitatik eratorritako kargena, zilegitasun-agirien aurkezpenaren bitartez egin ahalko da.

Transmisioa, traspasoa eta inbertsio-produktuekin loturiko bestelako eragiketek, baita inbertsio-produktuetan oinarritutako eskubide erreal mugatuen edo bestelako kargen eraketa, transmisioa eta ezeztapenak ere, erregistroetan inskribatzea eragingo dute, zeinak burutuko diren ekintzaren, kontratuaren edo negozio juridikoaren egiaztagiria aurkeztu ondoren. Era berean, inbertsio-produktuak berme edo kargen menpe daudenean, inskribatu aurretik, hartzekodun pignorazioaren edo berme edo kargaren onuradunaren adostasunaren egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

Bezeroaren inbertsio-produktuak beste Entitate batera traspasatzeko, beharrezkoa izango da Bankuak hartara ezarrita daukan eredu bete eta sinatzea; eredu hori Bankuari aurkeztu beharko zaio, Finantza-tresnen Zorroaren azken laburpenarekin batera, Bezeroak atzealdean sinatuta, jaso-agiri modura, baita helburu horretarako beharrezkoak diren gainerako dokumentuak ere.

Bankuak Bezeroari entregatutako titulu berdinak leheneratuko dizkio, eta posible ez bada, finantza-tresnen iraungigarritasuna dela-eta, gordailuan hartutako, erregistratutako edo kudeatutakoaren kopuru bera leheneratuko dio, gordailutza emandako, zaindutako edo kudeatutako inbertsio-produktuen mota berekoa, ezaugarri berdinak dituztenak eta eskubide berdinak ematen dizkietenak.

Ezin izango zaizkio fidantza edo bermeei atxikitako inbertsio-produktuak leheneratu, ezta bahitura edo atxikipen judizial edo administratiboetara atxikita daudenak ere.

Bezeroak Bankuari ordaindu beharko dizkio Kontratu honetan eta Tarifen Liburuxkan xedatzen diren komisioak, kopuru horiek Kontratu honetan zehaztu bezala zorretan hartzeko baimenarekin. Era berean, Bezeroak inbertsio-produktuen gordailutzaren ezeztapenean edo transferentziaren unean zor dituen komisioak, kostuak eta gastuak ordaindu beharko ditu, ezeztatze edo transferentzia gauzatu arte sortzen diren aldizkako komisioren zati proportzionala barne.

ZAZPIGARRENA.- Babes-neurriak

Bankuak beharrezko neurriak hartzen ditu bere bezeroen inbertsio-produktuak eta funtsak babesteko eta inbertsio-produktuen baimendu gabeko erabilera saihesteko, bezeroen zein beste edozein pertsonaren aldetik.

Bankuak beharrezko neurriak hartuko ditu ziurtatzeko inbertsio-produktuak behar bezala identifikatuta daudela Bezeroaren jabetzako gisa, eta aktibo finantziario horiek Bankuarenetatik, Bankuko beste bezero batzuenetatik eta, egoki denean, azpizaindari/ahaldunordeenetik eta haien bezeroenetatik bereizita daudela. Horretarako, Bankuak beharrezko erregistro eta kontuak mantenduko ditu, datuen zehaztasuna eta horien eta Bezeroaren inbertsio-produktuen eta funtsen arteko ekarrekikotasuna bermatuz; hala badagokio, aldizka Bezeroaren aktiboak baliatzen dituzten hirugarrenen erregistro edo kontuekin berdinkatuko ditu.

Bankuak Bezeroaren inbertsio-produktuen gordailutza, zaintza, erregistroa eta administraziorako azpizaindairak edo kontu globalak baliatzen dituenean, Bankuak behar bezalako arduraz egingo du azpizaindarien ebaluazioa, selekzioa, kontratazioa, mantenimendua eta kontrola, eta inbertsio-produktuen zein horiei buruzko eragiketen egoera ezagutzeko beharrezko erregistroak mantenduko ditu.

Era berean, aplikagarri den araudiaren arabera, Bankuak akordioak eratu ditu Grupo Santanderretik kanpoko izen oneko erakundeekin; ondorioz, inoiz zailtasun finantziarioak baditu, edo arrazoizko zalantzak badaude bere bideragarritasunari edo inbertsoreei ematen dien babesari buruz, bere bezeroen funtsen eta zaintzapeko aktibo finantziarioen transferentzia burutuko da.

Gainera, Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Funtsetara (FDG) atxikita dago bankua. FDGren harremanetarako datuak hauek dira: José Ortega y Gasset kalea, 22, 28006 Madril; Telefono-zenbakia: 914316645; webgunea: www.fgd.es. Bankuak FDGri buruzko informazio xehea ematen dio Bezeroari, besteak beste, bere funtzionamendua, erreklamaziorako baldintzak eta modua, bermea, honen irismena eta erregulazioa, Bankuaren webgunean eskuragarri: www.bancosantander.es/tablon-anuncios/fondo-garantia-depositos.

ZORTZIGARRENA.- Kostuak, gastuak eta pizgarriak

8.1.- Loturiko kostuak eta gastuak

Bezeroak Finantza-tresnen Zorroaren kudeaketa, zaintza, erregistro eta mantenimendu zerbitzuekin lotutako komisio eta gastuak ordaindu beharko ditu, baita Bezeroak agindutako edo Finantza-tresnen Zorroan mantentzen diren inbertsio-produktuekin bere kontura egindako eragiketei lotutako gastu eta kostuak ere, Kontratu honetan zehazten den bezala.

Inbertsio zerbitzuekin eta laguntza zerbitzuekin lotutako komisioen eta gastuen baldintzak, tarifak, aldizkakotasuna eta kalkulu-oinarria kontratu honetan zehazten dira, baita Oinarrizko Kontratuan eta Baloreen Merkatuko eragiketa eta zerbitzuen gehieneko tarifen Liburuxka informatiboan («**Tarifen Liburuxka**» delakoa), zeina Bankuak Bezeroaren eskura jarri duen bere webgunean www.bancosantander.es/tablon-anuncios. Tarifen Liburuxka horretan xedatutakoa aplikagarria

izango da Kontratu honetarako eta produktu edo zerbitzu konkretuak kontratatzeko zein inbertsio-produktuei lotutako eragiketak burutzeko beste edozein kontratu berezi edo agindurentzat («**Kontratu Bereziak**»), besterik esan ezean. Bankuak komisio eta gastu hauei lotutako edozein aldaketa jakinarazi beharko dio Bezeroari, Kontratu honetan zehaztutakoaren arabera.

Inbertsio-produktuekin lotutako komisio eta gastuen baldintzak, tarifak, aldizkakotasuna, kalkulu-oinarria eta ordaintzeko era Kontratu Berezietan edo horien produzitzaile edo jaulkitzaileak xedatuko ditu, beharren arabera, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Bezeroak honakoak ere ordaindu beharko ditu:

- Kontratutako produktu eta zerbitzuen gaineko zergak, indarrean dauden arauari jarraiki.
- Korrespontsal, bitartekari, konpentsaketa eta kitapen sistema eta aginduak burutzeko eta zerbitzuak emateko beharrezkoa den beste edozein entitatearen gastuak.
- Bezeroak kontratatutako inbertsio produktu eta zerbitzuekin lotutako postaren gastuak.
- Kontratutako inbertsio-produktuari dagokion zenbateko inbertitua.

Bankuak komisio, gastu eta zergak, baita inbertitutako zenbatekoak ere, Finantza-tresnen Zorroari lotutako eskudiru kontuetara kargatuko ditu; Kontratu honetan zehaztutakoaren arabera.

Bankuak Bezeroari jakinarazten dio Finantza-tresnen Zorroan euroa ez den beste dibisa bateko inbertsio-produktuak mantentzen baditu, sortu litekeen edozein komisio edo gastu beren eurotako kontrabalioaren arabera kalkulatu dela; inbertsio-produktu horientzat Finantza-tresnen Zorroari lotuta dagoen eskudiruko kontuaren dibisa gorabehera. Dagokion dibisarako indarrean dagoen kanbio-tasa ofizialaren arabera kalkulatu da kontrabalioa, eroslearen edo saltzailearen prezioan oinarrituta, dagokionaren arabera, komisioa edo gastua ordaintzeko egunean Bankuak eskuragarri dituenen arabera. Aurrekoaren aurka egin gabe, Bankuak adierazitako kanbio-tasaren eta ordainketa egiteko eguneko tasaren aldaketaren ondoriozko aldeak ere jaso ahal izango ditu eta Bezeroari jakinaraziko dio gertaera.

8.2.- Pizgarriak

Beste entitate batzuen inbertsio edo laguntza zerbitzuak euren Bezeroen artean merkaturatzeagatik, Bankuak jaso edo ematen dituen sari, komisio edo onura ez-monetarioak dira pizgarriak.

Pizgarri bat kobratu edo ordaintzeak ez du ezan nahi Bezeroaren interesen aurkako zerbitzu bat eskaintzen duenik bankuak. Bankuak beti jokatu du Bezeroaren interes onenen alde, eta pizgarriak kobratu edo ordaintzean indarrean dagoen araudi aplikagarriari atxikiko zaio.

Bankuak bere bezeroei ematen dizkien inbertsio eta laguntza zerbitzuak berariaz antolatzen ditu pizgarriak kobratu edo ordaintzeak emandako zerbitzuaren kalitatea hobetu dezaten, eta ez dezaten kaltetu zintzotasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez bere bezeroen interesik onenean jokatzeko duen betebeharra. Horretarako, Bankuak bere zerbitzuetan elementu gehigarriak edo hobeak txertatzen ditu, bere bezeroei kalitate handiagoko zerbitzuak emanaz. Gainera, Bankuak bere bezeroen eskura jartzen ditu inbertsio-erabakiak hartzea errazten duten balio erantsiko tresnak, eta haien segimendua behar bezala egiteko informazioa ematen die.

8.3.- Kostu, gastu eta pizgarriei buruzko informazioa

Bankuak Bezeroari jakinarazten dio zeintzuk diren Finantza-tresnen Zorroko inbertsio-produktuei dagokizkien kostu, gastu eta pizgarriak, araudi aplikagarriari jarraiki.

Bankuak Bezeroa informatuko du:

- Inbertsio bat egin aurretik, eta aurrerapen nahikoarekin, honi lotutako kostu, gastu eta pizgarriei buruz. Bankuak ezin duenean kostu, gastu eta pizgarrien hurbilketa bat aurreikusi, horien arrazoizko estimazio bat aurkeztuko dio Bezeroari.
- Aldizkakotasunez informatuko du, gutxienez urtean behin, tarte horretan emandako zerbitzuen eta Finantza-tresnen Zorroan dauden edo egon diren inbertsio-produktuen kostu, gastu eta pizgarriei buruz.

Kostu, gastu eta pizgarriei buruzko informazioa, besteak beste, honakoa izango da:

- Inbertsio zerbitzuekin lotutako kostu eta gastuak, eta inbertsio horrekin lotuta eman diren laguntza-zerbitzuak.
- Inbertsioa jaso duten inbertsio-produktuei dagokizkien kostu eta gastuak. Bankuak oinarritzat hartu ahalko du inbertsio-produktuaren ekoizle edo jaulkitzaileak horren kostu eta gastuei buruz emandako informazioa.
- Inbertsioarekin lotutako pizgarriak.
- Euroa ez den dibisekin egindako eragiketetan, Bankuak txanpona zein den, ezarritako aldaketa mota eta lotutako kostuak jakinaraziko ditu ere.

Bezeroak informazio xehea eskatu diezaiokie Bankuari kostu, gastu eta pizgarriei buruz.

Bankuak Bezeroari jakinarazten dio kostuak eta gastuak kobratzeko erak honako hauek izango direla: (i) Finantza-tresnen Zorroari lotutako dagokion eskudiruko kontuan kobratzea; edo (ii) inbertsio-produktuaren prezioak barne hartzen duen kostu baten bitartez. Inbertsio-produktuaren baldintzen arabera, kostu hori behin aplikatuko da produktua eskuratzean edo era errepikakorrean.

BEDERATZIGARRENA.- Informazioa

9.1.- Bezeroak Bankuari eman beharreko informazioa

Bezeroak hitz ematen du Bankuari zerbitzuak edo inbertsio-produktuak kontratatzeko beharrezko informazio guztia emango diola, Kontratu honetan zehaztu bezala eta araudi aplikagarriari jarraikiz. Bereziki, Bezeroak beharrezko informazio guztia emango dio Bankuak bezerotzat klasifiatu dezan, eta dagokionean, onura eta egokitasun ebaluazioak burutzeko.

Bezeroak informazio egiazkoa, osoa, zehatza eta eguneratua eman beharko du. Informazio horretan edo bere egoeran aldaketarik egon bada, Bankuari jakinarazi beharko dio eta dagokion informazio eguneratua eman. Bezeroak emandako informazioaz fidatuko da Bankua, informazio hori zaharkitua, osagabea edo guztiz zuzena ez dela dakien kasuetan ezik.

9.2.- Bankuak Bezeroari eman beharreko informazioa

Bankuak Bezeroari informazio egokia emango dio, era argi eta inpartzialean, inbertsio zerbitzu eta produktuei, eragiketen burutzeari, loturiko kostu, gastu eta pizgarriei eta Kontratu honen xede den jardueraren beste alderdi guztiei buruzkoa, araudi aplikagarriari jarraikiz.

Bankuak Bezeroari informazioa Kontratu honetan zehaztu bezala emango dio, moduari, baliabideei, aldizkakotasunari eta epeei dagokionean, araudi aplikagarriari jarraikiz.

Bankuak Bezeroari zaindutako, erregistratutako, gordailututako edo administratutako inbertsio-produktuei buruzko informazio guztia emango dio. Gutxienez (3) hilabetearen behin, Bankuak Bezeroari dituen posizio guztien egoerari buruzko informazioa emango dio. Era berean, Bankuak Bezeroari posizioa aldatzen duten eragiketei buruzko informazioa emango dio, burututako eragiketaren kostu eta gastuei buruzko informazioa barne, Bezeroak horien banakatze zehatza eskatzeko aukera duelarik. Gainera, Bankuak Bezeroari emango dio lege nahitaezkoa den informazioa, ofizialki argitartatzen dutenean gordailututako inbertsio produktuen entitate jaulkitzaile edo kudeatzaileek, eta dagokion inbertsio produktuen titularitateak berekin dakartzan eskubide, betebeharrak eta eragiketei eta barne hartutako eskubideen gauzatze edo mantentzeari, betiere era egokian jakinarazten bazaio, edo bestela, Bankuak aipatutako informazioaren ezagutza duenean inbertsio produktu horien gordailuzain izateagatik. Bankuak Bezeroari informazio hori ematen dizkion beste zerbitzu batzuei buruzko informazioarekin batera eman ahalko dio.

Finantza-tresnen Zorroaren posizio-egoeraren txostena bertan identifikatutako inbertsio-produktuen gordailutza, zaintza, erregistroa eta administrazioaren baliabide informatiboa dira, ulertzen delarik Bezeroari emandako azken posizio-egoeraren txostenak data horretako errealitatea azaltzen duela, aurreko posizio-egoeraren txostenak ordezkatzuz. Posizio-egoeraren txostena dokumentu izendun eta besterenezina da, eta ezin da, hortaz, besterendu edo endosatu eta titulu nahikoa da Bezeroak Bankuari zaintzan utzitako, erregistratutako edo honek kudeatutako inbertsio-produktuak leheneratzea eskatu ahal izateko, baina horrek ez du galaraziko Bezeroak bestelako bitartekoak erabiliz ere egiaztatzeko modua izatea.

Finantza-tresnen Zorroak gordailututako, zaindutako, erregistratutako edo kudeatutako inbertsio-produktuen egiaztagirien jaulkipena hauen kontabilitate-erregistroaren ardura duen entitateari edo erregistro banatuko sisteman inskribapen eta erregistroen kudeatzeko ardura duen entitateari dagokio. Kontabilitate-erregistroko eserlekuetan edo erregistro banatuaren arauen arabera zilegituta agertzen den pertsona hartuko da inbertsio produktuaren zilegizko titulartzat, bera izanik, inbertsio produktuetatik eratorritako eskubideen, eskubide erreal mugatuen edo haien gainean jarritako kargen onuradunekin batera, egiaztagiriaren jaulkipena eskatzeko gaitasuna duen bakarra.

Egiaztagirietan honakoa zehaztuko da: jaulkitze-data, jaulkitze horren helburua, indarraldia, inbertsio-produktuen zilegizko titularren identitatea, eta dagokionean, baita eskubideen eta kargen onuraduna ere. Gainera, besteak beste eta inbertsio produktuaren izaerari arreta emanez, inbertsio produktuaren identifikazioa (jaulkitzea, mota, etab.), produktuaren entitate jaulkitzailearen identifikazioa, bere balio nominal/likidazio-balioa, titulu kopurua, eta, dagokionean, eskubide mugatuak edo haien gaineko kargak.

Egiaztagiriek erreferentzia egin ahalko diote saldo baten baitako inbertsio-produktu guztiei edo batzuei. Horietako batzuei bakarrik erreferentzia eginez gero, jaulkitzeko unean dagokion banakatzea egingo da inbertsio produktuak inskribatuta edo erregistratuta dauden kontu edo erregistroan, zeina mantenduko den egiaztagiria itzuli edo iraungi arte.

Ezin izango da jaulki, inbertsio-produktu berberetarako eta eskubide berberak gauzatzeko egiaztagiri bat baino gehiago. Egiaztagiriak ez du emango zilegitasunaz gaindiko inolako eskubiderik, eta beraz, egiaztagiriari eragiten dioten xedapen-egintza guztiak baliogabeak izango dira.

Egiaztagiria jaulki den inbertsio-produktuen saldoa ibilgetuta geratuko da, eta beraz, ezin izango da burutu transmisio edo kargarik edo dagokizkion inskribatze eta erregistrorik egiaztagiriak itzultzen ez diren bitartean, salbu eta egikaritza judizial edo administratiboetatik eratorritako transmisioak badira; itzulketarako eskubidea agortu egiten da egiaztagiriak bere balioa galtzen duenean.

Bankuak emandako informazioan sartuko da gordailutzan utzitako, zaintzan utzitako, erregistratutako edo kudeatutako inbertsio produktuen balorazioa, merkatuko balioaren arabera. Finantza-tresnen Zorroan islatutako aktiboak balioesteko merkatuko prezio edo balorerik lortzerik ez dagoenean, Bankuak dagozkion inbertsio produktuei dagozkien eta Finantza-tresnen Zorro horretarako balioetsitako balioa jakinaraziko du, Finantza-tresnen Zorroan mantentzen direnak. Gainera, balioespen hori hutsa ere izan ahalko da, likidezia gabeziaren adierazle.

Kontratu honen eraketarako aurrebaldintza bezala eta inbertsio edo laguntza zerbitzuak eman aurretik, Bankuak Bezeroari eman dio «Inbertsio zerbitzuak emateari buruzko informazioa» izeneko dokumentua («**MiFID Liburuxka**»), zeinetan aurki daitekeen Kontratu honen xede diren produktu eta zerbitzuen ezaugarriak, funtzionamenduak eta arrisku orokorreari buruzko informazioa. Aipatutako dokumentua argitaratuta eta ikusgai dago Bankuaren webgunean: www.bancosantander.es/es/espacio-mifid.

9.3.- Bestelako informaizo-betebeharrak

Araudi aplikagarrian aurreikusitako baldintzei jarraikiz:

- Hala eskatuz gero, Bankuak honako informazioa emango die agintaritza judizial eta administratibo eskudunei: burututako eragiketei buruzko informazioa, mantendutako inbertsio produktuen posizioak eta emandako zerbitzuei eta Kontratu honen xedea den jarduerari buruzko beste aspektu guztiei buruzkoa.
- Bankuak inbertsio produktuen titular eta azkeneko onuradunei buruz egiten zaizkion informazio eskaera guztietaz arduratuko da. Horretarako, Bezeroak Bankuari beharrezko informazioa emateko erantzukizuna hartzen du.
- Horrez gain, Bankuak Kontratu hau burutzeko beharrezko informazioa emango die zerbitzuak ematen eta Kontratu honen xede diren jarduerak burutzen parte hartzen duten entitateei.

Bezeroak atal honetan hitzartutakoa ezagutu eta berariaz baimentzen du.

HAMARGARRENA.- Komunikazioak. Kontratazioa eta eragiketak burutzea

10.1.-Hizkuntza

Kontratu hau espainieraz eginda dago; Bezeroaren eta Bankuaren arteko komunikazioak espainieraz egingo dira, baita Kontratu honen xedea den jarduerari buruzko dokumentazio eta informazioa ere.

102.- Komunikazioak

Bankua eta Bezeroa Oinarrizko Kontratuak zehaztutako baldintzetan eta baliabideen bitartez komunikatu ahalko dira.

Bankuak Bezeroari emango dizkio Kontratu honi eta haren gaia den jarduerari buruzko dokumentazio eta informazioa, formatu elektronikoko euskarri iraunkorrean, beharren arabera bertara sartu, gorde edo erreproduzitzeko moduan. Horrela, Bankuak aipatutako dokumentazioa eta informazioa eman ahalko dizkio Bezeroari, posta elektronikoko bitartez edo posta arrunta ez den beste baliabide batzuen bitartez, eta edozein kasutan, Bankuko Bezeroaren postontzian, zeinetara sartu daiteken unean Bankuak erabilgarri dituen urruneko banka zerbitzuen bitartez, batez ere, honako webgunean, www.bancosantander.es eta Bankuaren mugikorreko aplikazioan. Helburu horretarako, Bezeroak urruneko banku-zerbitzuak onartu behar ditu (Banka Digitalaren Kontratua). Dena dela, Bezeroa txikizkari bezala sailkatuta egonez gero, hautatu dezake dokumentazioa eta informazioa paperean jasotzea, kostu gehigarririk gabe. Horretarako, Bankuari idatzizko eskaera egin beharko dio.

Bezeroak Espainiako helbide bat eman beharko dio Bankuari, eta dagokion edozein aldaketa jakinarazi. Gertatzekotan, postazko komunikazioak helbide horretara bideratuko dira, eta Bankuak ez du ardurarik izango Bezeroak ez baditu dagokizkion komunikaizoak jaso Espainiako helbide eguneratua ez komunikatzearen ondorioz.

Kontratu honen ondorioz, araudi aplikagarriari jarraikiz, Bankuak Bezeroari eman beharreko dokumentazio eta informazio guztiaz gain, Bankuak Bezeroari sarbidea eman ahalko dio Grupo Santanderreko beste entitate edo hirugarren entitateek Kontratu honen xede diren inbertsio zerbitzu eta produktuen kontratazioaren ondorioz Bezeroaren eskura jartzea dagokien dokumentu eta informazioa. Sarbide hau honako Hizpaketan ezarritakoaren arabera emango da.

10.3.- Kontratazioa eta eragiketak burutzea

Bezeroak inbertsio produktuak kontratatu, eta haiei buruzko eragiketak kudeatu eta burutu ahalko ditu, Oinarrizko Kontratuak zehaztutako baldintzetan eta baliabideen bitartez. Bezeroak produktuak kontratatu ahalko ditu eta unean kanaletako bakoitzean egingarri dauden eragiketak burutu.

Bezeroa jakitun da eta onartzen du Bankuak, indarrean dagoen araudiari jarraikiz, ez duela Bezeroaren inbertsio produktu mota jakin batzuei lotutako agindurik burutuko, haien artean lehentasunezko harpidetza-eskubideen merkatuko salerosketa eragiketak, Bezeroak Bankuari beharrezko dokumentua eman ezean, zeina baiten Bezeroaren nazionalitatearen herrialdeko nortasun-agiria (National ID) Bezeroa pertsona fisikoa bada, edo bestela, entitate juridikoaren identifikazio zenbakia (LEI kodea) Bezeroa pertsona juridikoa bada.

Era berean, edozein motatako inbertsio produktuen harpidetza/erosketa murriztu egiten da «United States Person» («US Person») baldintza duten bezero guztientzat, legeri estatubatuarraren arabera («Securities Act of 1993, bertako 902(k) atalean»), bereziki AEBn eratutako entitateen edo AEBetan erresidentzia duten pertsonen aldetik. Aurrekoaren galerarik gabe, inbertsio-produktu bati buruzko edozein eragiketa bere legezko dokumentazioan zehaztutakoaren arabera egin beharko da.

10.4.- Kotitularitatea eta ordezkaritza

Kontratu honen Titular («Titular/rak») aniztasunaren kasuan, berariaz kontrakoa adostu ezean, Titularretako edozeinek, sinadura bakarrarekin, Finantza-tresnen Zorroan mantentzen diren inbertsio-produktuak erabili, kudeatu edo haiei buruzko eragiketak egin ahalko ditu, baita Kontratuaren berezko eskubide guztiak gauzatu, era solidarioan, honen ezeztapena barne.

Bezeroak badaki eta onartzen du, titular aniztasun kasuan, Titularrek adostutako erabilera-baldintzak gorabehera (solidario edo mankomunatuak):

- Titularretako bakoitzak aurrez bere Oinarrizko Kontratua sinatu du Bankuarekin, Kontratu hau sinatu aurretik, eta Kontratu honen baldintzak bere osotasunean ezagutu eta onartzen ditu.
- Titular guztiek modu solidarioan erantzungo dute Bankuaren aurrean Kontratu honetatik eratorritako betebeharrak guztiengatik.
- Inbertsio produktuen kontratazioa eta haiei buruzko eragiketen burutzea titulartasun berberaren baitan eta Finantza-tresnen Zorro berarentzat bakarrik burutu ahal izango dira.
- Komenitasun- eta egokitasun-ebaluazioak Kontratu honetan zehaztutakoaren arabera egingo dira.

Bezeroak ordezkarien («Ordezkaria») bitartez jarduten badu, bai Bezeroa, bai Ordezkaria berariaz atxikiko zaizkie Kontratu honetako baldintzei, eta ulertuko da bere ordezkapenak indarrean jarraitzen duela Bankuak haren eraldaketa, ukatze edo azkentzeari buruzko jakinarazpen fede-emaile bat jaso arte. Kasu hauetan, komenitasun eta egokitasun ebaluazioak Kontratu honetan zehaztutakoaren arabera egingo dira.

Ordezkaritza araudi aplikagarriari eta ordezkaritza egiaztatzeko dokumentazioan xedatutakoari atxikiko zaio. Ordezkariek bere jardunean ordezkartzaren baldintzak ezagutu eta errespetatzeko ardura hartzen du, Bankua horri buruzko edozein erantzukizunetik salbuetsita geratzen delarik, eta Bezeroaren eta Ordezkararen artean egoki izan litezkeen ekintzen galerarik gabe.

HAMAIKAGARRENA.- Komenitasun eta egokitasunaren ebaluaketa

Bankuak ebaluatuko du ea produktuak komenigarriak edo egokiak diren bezeroarentzat, araudi aplikagarrian eta Oinarrizko Kontratuan zein Kontratu honetan zehaztutakoari jarraiki. Aipatutako ebaluazioen helburua Bankua Bezeroaren interesik onenen alde jokatzera ahalbidetzea da.

Kontratu honetan bestelakorik zehaztu ezean, emandako zerbitzuaren arabera, komenitasun eta egokitasunaren ebaluazioa Oinarrizko Kontratuan zehaztutakoaren arabera burutuko da, kotitularitate eta ordezkaritza kasuetarako berariaz aurreikusitakoa barne.

HAMABIGARRENA.- Kontratuaren indarraldia

12.1.- Iraupena eta ezeztapena

Kontratu honen iraupena mugagabea izango da. Bankuari hamabost (15) guneko aurrerapenaz idatziz jakinaraziz gero, edozein unetan deuseztatu dezake kontratua Bezeroak.

Bankuak edozein momentutan deusezta dezake kontratua, Bezeroari hilabete bateko (1) aurrerapenaz idatziz jakinaraziz gero. Kasu hauetako edozeinetan berehalakoan deusezta dezake kontratua Bankuak: (i) Bezeroak ez badu ordaintzen Kontratu honen arabera zor dituen zenbatekoetako edozein; (ii) Bezeroak merkatu gehiegikeriarekin edo diru zuritzearekin lotutako arauak hausten baditu; (iii) Bezeroarekin kreditu arriskuren bat badago.

Kontratua amaitutzat jotzen badu, Bankuak Bezeroari inbertsio produktuak itzuliko dizkio, tituluak fisikoki entregatuz, edo kontabilitate-erregistroen traspaso edo transferentziaren bitartez, edo erregistro banatuko sisteman erregistratutako traspaso edo transferentzia bitartez, edo araudi aplikagarriak baimendutako beste edozein baliabideren bitartez, inbertsio produktu bakoitzari dagokion ordezkaritza edo erregistro baliabidearen arabera, Bezeroak, bi kasutan ere, Finantza-tresnen Zorroaren azken laburpena edo, hala badagokio, legitimazio-ziurtagiria aurrez itzulita, baita Bankuak jaulkitako jatorrizko gordailu-frogagiri edo ziurtagiriak ere, Bezeroak jaso-agiri gisa sinatuta; Bankuak, beharrezkoa izanez gero, inbertsio produktuen epai- edo notario-kontsignazioa egingo du, Bezeroak horiek jasotzeari uko egiten badio.

Bezeroak Bankuari ordaindu beharko dizkio zor dizkion komisio, kostu eta gastu guztiak, Kontratuaren deuseztatzea burutu arte sortzen diren aldizkako komisioen zati proportzionala barne.

Deuseztapen eskariak ez dio Bankuari galaraziko deuseztapenaren datan burutzeke dauden eragiketak burutzea eta horretarako hirugarrenekin sortutako zorrak ordaintzea, aurrez dagokizkion komisio, kostu eta gastuak kendu ondoren. Deuseztapena burutzean, Bankuak hamabost (15) eguneko gehieneko epea izango du aipatutako eragiketak burutzeko, haien izaerarengatik edo Merkatuko bestelako baldintzengatik epe handiagoa beharrezkoa bada salbu, eta Finantza-tresnen Zorroa itxiko du.

12.2.- Aldaketa

Bankuak Kontratu honen baldintza eta zehaztapenak aldatu ahalko ditu, egindako aldaketei buruz Bezeroari aurrez jakinaraziz. Bezeroak aipatutako informazioa jakinarazi zaionetik hilabete bateko (1) epea du kontratu-harremana aldatu edo deuseztatzeko kostu gehigarririk gabe, eta tarte horretan baldintza berriak aplikatu gabe. Epe hori igarotzean Bezeroak erantzunik eman ezean, jakinarazi diren aldaketak aplikagarriak izango dira. Aldaketak Bezeroarentzako onuragarriak badira, berehalakoan aplikagarriak izango dira horiek jakinarazi diren unetik bertatik.

12.3.- Atzera egitea

Kontratu honen izaera eta xedea kontuan izanda, ez da aplikagarria izango atzera egiteko eskubidea, helburu horretarako aplikatzen den araudiari jarraikiz.

HAMAHIRUGARRENA.- Legeria, juriskidzioa eta epaibidetik kanpoko erreklamazio-prozedura

13.1.- Legeri eta jurisdikzio aplikagarria

Kontratu honek, eta hemen jasotzen diren produktu eta zerbitzuak kontratatu edo Kontratuaren xede diren eragiketak burutzeko helburuarekin Bankuarekin sinatutako dokumentuek, Espainiako legeria jarraitzen dute. Haien interpretazioari, aplikazioari edo burutzapenari buruz sor daitezkeen auziak Espainiako legeria prozesalarekin bat etorritik eskumena duten epaitegi eta auzitegien jurisdikzioari atxikiko zaizkie.

13.2.- Epaibidetik kanpoko erreklamazio-prozedura

Bezeroak erreklamazioa edo kexa aurkeztu dezake Erreklamazio eta Bezeroaren Arreta Zerbitzuan. Hona hemen harekin harremanetan jartzeko datuak:

Erreklamazioetarako eta Bezeroaren Arretarako Zerbitzua: 35.250 posta-kutxa - 28080 Madril, Espainia; helbide elektronikoa: santander_reclamaciones@gruposantander.es

Ebazpenarekin ados egon ezean, edo aplikagarri den araudiak ezarritako epea igarotakoan ebazpenik jaso ez bada, Bezeroak Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalera (CNMV, gaztelaniazko siglei dagokienez) jo ahal izango du; ezinbestekoa izango da erreklamazioa aurrez Bezeroaren Arreta Zerbitzuaren aurrean aurkeztu izana.

HAMALAU GARRENA.- Adierazpenak, onespak, baimenak eta erantzukizunak

14.1.- Adierazpenak eta baimenak

Kontratu honi eta haren xede den jarduaerari dagokionez, Bezeroak berresten ditu Bankuaren eta Bezeroaren artean sinatu den Oinarritzko Kontratuan Bankuari egindako adierazpenak eta emandako baimenak.

Aurrekoaren galerarik gabe, Bezeroak bere onespina ematen du eta Bankuari baimentzen dio:

- Azpizaindariak erabiltzeko eta Bezeroaren finantza aktiboen erregistro bereizia zein tresnen zaintza eta administrazio zerbitzua hirugarrenei delegatzeko.
- Kontu globalak (edo «omnibus kontuak») erabiltzeko aktibo finantziarioekin egindako eragiketa horietarako, ohiko operatibak hala eskatzen badu, eta Bankuak operatiba honen eta azpizaindariaren arriskuen inguruko informazioa eman badio.

14.2.- Onspina eta adierazpenak lortzea

Bezeroak badaki eta onartzen du, Kontratu honetako jardueretarako egoki denean, Bankuak Bezeroaren onarpena, baimena, onespina edo adierazpena bildu ditzakeela, unean Bankuak erabilgarri dituen baldintzetan eta baliabideen bitartez, eta araudi aplikagarriari jarraikiz.

14.3.- Erantzukizuna

Oinarrizko Kontratuan xedatutakoaren galerarik gabe, Bankuak Bezeroari eragin diezazkiokeen kalte ekonomikoen erantzule izango da, baldin eta bakarrik baldin kalte horiek behar bezalako prestasunik gabe egindako ekintzetatik eratortzen badira, edo Kontratu honetako edo aplikagarri den araudiko xedapenak urratzen baditu; ez du inolako ardurarik izango gertatzen diren kalteen aurrean edo Bezeroaren inbertsio produktuek jasan litzatekeen galera edo narriaduren aurrean merkatuaren arriskuez, halabeharrez edo zorigaitzez, edo Bezeroak Bankuari emandako aginduetan edo jarraibideetan garaiz eta era egokian konpondu ez diren atzerapenak edo zehaztasun-ezak eragindakoak badira.

HAMABOSTGARRENA.- Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

15.1.- Tratamenduaren arduraduna

Nortasuna: Banco Santander, S.A. (aurrerantzean, "Bankua").

15.2.- Zergatik eta zertarako tratatzen ditugu zure datuak?

Eskatzaileak edo eskatutako eragiketan parte hartzen duen edozein hirugarrenek (abal-emaileek, ordezkariak, berme-emaileak, baimenduek, edo eskatzailearen ordezkariak edo harremanetarako pertsonak, besteak beste), baldin eta pertsona fisikoa bada –aurrerantzean «Interesdunak» eta, oro har, «Interesdunek»– Bankuari eskaera honi lotuta ematen dizkieten datu pertsonalak (aurrerantzean, «Datuak») Bankuak tratatuko ditu, tratamenduaren arduraduna baita, batik bat xede hauetarako eta adierazitako legitimazioei men eginez:

I. KONTRATUZKO IZAERADUN ETA BETEBEHAR LEGALEKO XEDEAK:

Bankuarekin dauzkan edo Bankuaren bitartez kontratatu dituen produktu eta zerbitzuen kontratazioa eta kontratuen betearazpena mantentzea eta Bankuari dagokizkion betebeharrak legalak asetzeari.

II. INTERES ZILEGIAN OINARRITUTAKO HELBURUAK:

Kontratu bat eskatu edo kontratu batean titular, abal-emaile edo berme-emaile gisa esku hartuz gero, eta ez ordaintzerik eginez gero, kreditu-informazio baterako sistemei jakinaraztea. Iruzurra aurreikusi, ikertu edo aurkitu.

Kontratu baten titular gisa esku hartzen baduzu, profil komertzial bat sortzea, zure ezaugarri pertsonaletara eta ohituretara ongien egokitzen diren produktu, zerbitzu, gomendio, aholku eta informazioei buruz dituzun beharrak identifikatzeko, barne-iturriak erabilita.

Bankuak sustatutako fidelizazio, promozio eta lehiaketa edo zozketetan sartzeko, entitatearekin duzun asebetetze eta atxikimendu maila hobetzeko helburuarekin. Tratamendu honetatik kanpo geratzen dira pertsona fisiko eta juridikoaren ordezkariak.

Prozedura administratibo, epai-aurreko eta judizialen kudeaketa.

Emandako zerbitzuen kalitatearen egiaztapena.

Barne-txostenen eraketa.

Estatistiken lanketa eta analisi-eredu prediktiboen sorrera.

Ekintza komertzialak garatzea, oro har, eta bereziki, Bankuak komertzializatu eta berezkoak dituen produktu eta zerbitzuak eskaintzea. Tratamendu honetatik kanpo geratzen dira pertsona fisikoaren ordezkariak.

Bezero gisa dituzun harremanetarako datu pertsonalak erabiltzea akziodun gisa duzun informazioa eguneratuta mantentzeko eta zure datu pertsonalen eguneraketarekin lotutako informazioa Grupo Santanderreko enpresei lagatzea, baita Grupo Santander taldeko enpresa partizipatuei ere, zeinen produktuak komertzializatzen edo erakusten dituen Bankuaren Bezero-gunean.

Bankuaren zordun izatera iritsiko bazina, bezero bezala duzun harremanaren ondorioz lorturikoez gain, beharrezkoa denean zuri buruzko datu gehigarriak lortzea, zu kokatzea errazteko edo zorraren ordainketaren ezagutza hobetzeko.

III. ZURE BAIMENEAN OINARRITUTAKO HELBURUAK:

Cookien eta antzeko teknologiak erabiltzea Bankuaren webgune eta aplikazioan. Baimen hau eskatuko zaizu Bankuaren aplikazio edo webguneko erabiltzaile gisa.

Horrez gain, Bankuak zure baimena eska dezake zure datuak beste helburu batzuekin erabiltzeko. Helburu horiei buruzko informazioa baimena eskatzen zaizun unean emango zaizu.

Zure datuak aurreko helburuetarako tratatzeko baimenik ematen ez baduzu baimena, beharrezkoa den kasuetan edo edozein unetan baimena kendu nahi baduzu, horrek ez dio eragingo Bankuarekin daukazu kontratuzko harremanari eusteari edo betetzeari. Interesdunak hobespenen konfigurazioa kontsultatu eta aldatu dezake webgunearen eta aplikazioaren eremu pertsonalaren edo bere kudeatzailearen bidez.

15.3.- Zer eskubide dituzu?

Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta hainbat tratamendu mugatzea eskatzeko eskubidea izango duzu, baita zure Datuak tokiz aldatzeko edo tratamendu automatizatuan bakarrik oinarritutako erabaki baten xedea ez izateko eskubidea ere, erabakietan pertsona baten esku-hartzea eskatzeko aukerarekin. Emandako baimena kentzeko eskubidea ere baduzu.

Aipatutako eskubidea baliatzeko edo zure izaera pertsonaleko datuen tratamenduari dagokien edozein motatako kontsultarik egiteko, mezu elektroniko bat bidal dezakezu helbide honetara: privacidad@gruposantander.es edo gutun bidez honako helbidera: Juan Ignacio Luca de Tena Kalea, 11-13, 28027 Madril (A/A. Datuen Babeserako Ordezkaria/Pribatutasunerako Bulegoa).

15.4.- Informazio gehiago

Esku-hartze motaren arabera zure datuen tratamenduari buruzko xehetasunak kontsultatzeko, joan gure webguneko Bezeroak atalera: <https://www.bancosantander.es/informacion-proteccion-datos>.

Gainera, zure eskura egongo dira Bulegoan ere. Bankuak kontratu-harremanaren ondorioz kontratu honen sinatzaile ez diren beste interesdun batzuen datu pertsonalak emango balitu, aurrez interesdunei jakinarazteko betebeharra du, eta dagokionean, haien baimena lortzekoa.

Kontratu honek Bezeroarekin aurretik goiburuan adierazitako Finantza-tresnen Zorroen kontua irekitzeko adostutako beste kontratu guztiak baliogabetzen ditu eta, Finantza-Tresnen Zorro horretan gertatu ahal izan den zenbaketa-alaketak izan direnean ere, Bankuaren eragiketen edo eragiketa logistikoen ondorioz.

Bezeroak eta Bankuak bere osotasunean ezagutzen dituzte Kontratua arautzen duten baldintzak, onartu egiten dituzte eta goiburuan adierazitako data eta lekuan formalizatzen dute Kontratu hau, zeina eman egiten den, alderdi bakoitzak kopia bana jasotzen duelarik.

BALORE-KONTUA (CCV) IREKITZEA

,FINANTZA-TRESNEN ZORROAREN ERANSKINA, zk.: 0049

(e)n, (e)ko aren

KONTRATUGILEAK

Alde batetik **BANKUA:**

BANCO SANTANDER, S.A., IFZ: A-39000013 eta egoitza soziala Pereda Pasealekua, 9-12, Santander, Cantabrian (Espainia) dauzkana, Santanderreko Merkataritza Erregistroan inskribatua, 286 or. , 64. 286. orria, 64. folioa. 5. Sozietateen 5. liburua, insc. 1.- bere sukurtsalaren bitartez hemen kokatua: ; ekintza honetan jaun/andreak egokitasunez ordezkatuta, NAN , eta jaun/andrea, NAN , ahaldun izanda, -e(a)n emandako ahalmen-idatzian zehaztu bezala, egunean , jaun/andrearen aurrean, zeina Notarioa den protokolo-ordenaren honako zenbakipean: .

Eta bestetik, Finantza-tresnen Zorroaren eta Kontratu honen TITULAR/BEZEROA(K):

Izen-deiturak/Izen soziala:

NAN/Nortasun-agiria: Bizileku-herrialdea:

Esku-hartze mota:

Ordezkaria:

zen-deiturak:

NAN/Nortasun-agiria:

Ordezkapen-titulua:

Esku-hartze mota:

BALORE-KONTUA (CCV)

Zenbakia: **0049**

Erabiltzeko modua: (solidarioa edo mankomunatua)

Bankuak eta Titularrak/ek Balio-kontu (CCV) baten irekiera adosten dute, zeina atxikita egongo den goiburuan izendatutako Finantza-tresnen Zorroari, zeinaren kontratutik Eranskin bereiztezina den dokumentu hau.

Balio-kontuaren (CCV) irekiera Baloreen Merkatuaren eta Inbertsio Zerbitzuen araudian aurreikusitako jokabide-arauei eta informazio-betekizunei atxikita burutzen da, baita Finantza-tresnen Zorroaren kontratuan xedatutako baldintzei ere, bereziki hari erantsitako Finantza-tresnen Zaintza eta Administrazioarako Kontratu Ereduaren Baldintza Orokor eta Bereziei. Balore-kontuaren (CCV)

irekieraren egoera baliatuz, Titularrak/ek berariaz berresten dituzte Finantza-tresnen Zorroaren kontratuan egindako adierazpenak.

Aipatutako Balore-kontuari (CCV) aplikagarriak zaizkion komisioak Eranskin honetan zehaztutakoak izango dira, eta aurreikusi gabekoan, Finantza-tresnen Zorroaren kontratuan xedatutako izango da aplikagarri.

Balore-kontuari (CCV) loturiko eskudiruko kontua(k) jarraian izendatutakoak dira, hauen titularraren/titularren berariazko onarpenaz:

LOTETSITAKO ESKUDIRUKO ABONU-KONTUA/KARGU-KONTUA - (KKK)

Zenbakia: **0049** Dibisa: EURO
Erabiltzeko modua: (solidarioa edo mankomunatua)
Titularra/k:
Izen-deiturak/Izen soziala:
NAN/Nortasun-agiria: Bizileku-herrialdea:
Esku-hartze mota:

LOTETSITAKO DIBISAN DAGOEN ESKUDIRUKO ABONU-KONTUA/KARGU-KONTUA - (KKK)

Zenbakia: **0049** Dibisa:
Erabiltzeko modua: (solidarioa edo mankomunatua)
Titularra/k:
Izen-deiturak/Izen soziala:
NAN/Nortasun-agiria: Bizileku-herrialdea:
Esku-hartze mota:

Komisioak- Balioen zaintza eta administrazio zerbitzua.

I. Balioen mantenua, zaintza eta administrazioa, kontuan egindako oharpenen bidez adierazita:

Merkatu espainiarretako balio negoziagarrietatik: % . Minimoa: euro. Errenta aldakorrarentzat kalkuluaren oinarria eskudiruaren arabera erabakiko da, eta errenta finkoko baloreetarako oinarria haien balio nominala izango da.

Atzerriko merkatuetako balio degoziagarrietatik: %. Minimoa: euro. Errenta aldakorrarentzat kalkuluaren oinarria eskudiruaren arabera erabakiko da, eta errenta finkoko baloreetarako oinarria haien balio nominala izango da.

Balio ez-negoziagarrietatik: % nominalaren gainean. Minimoa: euro.

Kotizaziorik izan ezean, nominala hartuko da oinarritzat.

II. Titulu fisikoen mantenua, zaintza eta administrazioa:

Merkatu espainiarretako balio negoziagarrietatik: % nominalaren gainean. Minimoa: euro.

Atzerriko merkatuetako balio degoziagarrietatik: % efektiboaren gainean. Minimoa: euro

Balio ez-negoziagarrietatik: % nominalaren gainean. Minimoa: euro.

III. Baloreak beste erakunde batera intsuldatzea:

Merkatu espainiarretako balio negoziagarrietatik: %. Maximoa euro.

Atzerriko merkatuetako balio degoziagarrietatik: %. Maximoa euro.

Balio ez-negoziagarrietatik: euro, balore-motaren arabera.

Hitzartutako komisioak balore-mota bakoitzari aplikatuko zaizkio (ezaugarri berdinak eta eskubide berdinak dauzkaten jaulkitzaile baten balore-multzoa). I. eta II. ataletan jasotakoak urteko oinarriko ehuneko gisa adierazita daude. Balioak urtebete baino gutxiagoz badaude gordailuan, aplikatu beharreko komisioa balore horiek gordailuan egondako egun-kopuruari dagokion parte proportzionala izango da. Gutxieneko zenbatekoa, halaber, baloreak gordailuan egondako egun-kopuruarekiko proportzioan aplikatuko da. Kalkulu-oinarria sortzapen-epealdian gordailuan egondako errenta aldakorreko baloreen eguneroko saldo efektiboen batez bestekoa izango da. Errenta finkoko baloreetarako, kalkuluaren oinarritzat hartuko da haien balio nominala. Aldizkako komisio hauek sei hilabeteko natural bakoitzaren amaieran likidatu eta beteko dira, edo gordailutza ezeztatzen den momentuan, dagokion proportzioan. Bestelako komisioak dagokion operazioa burutzen den egunean sortuko, likidatu eta ordainduko dira.

III. atalean jasotako komisioak ehuneko gisa emanak daude; gainera, gehieneko zenbatekoa ezarri beharra dago eta ezin da operazio bakoitzeko gutxienezko errenta ezarri. Kalkuluaren oinarria izango da, errenta aldakorreko baloreentzat, baloreek zuten balio eraginkorra traspasoa egin zen datan. Errenta finkoko baloreetarako, kalkuluaren oinarritzat hartuko da haien balio nominala. Komisio hauek dagokion operazioa burutzen den egunean sortuko, likidatu eta ordainduko dira.

Atzerriko merkatuetan dauden balore negoziagarrien tarifak berdin aplikatuko zaizkie balore nazionalei baldin eta gordailuzain atzerritar baten zaindapean jarri badira bezeroak eskatuta edo honek egindako operazioen betekizun bezala.

Komisioak – Merkatuetako bitartekaritza-eragiketak.

I. Bitartekaritza-eragiketak errenta aldakorreko baloreen merkatuetan:

Espainiako merkatuetan. Jasotzea, igortzea, burutzea eta likidatzea: % efektiboaren gainean. Eragiketa bakoitzeko euro gutxienez.

Atzerriko merkatuetan. Jasotzea, igortzea, burutzea eta likidatzea: % efektiboaren gainean.
Eragiketa bakoitzeko euro gutxienez.

II. Eragiketak errenta finkoko baloreen merkatuetan:

Espainiako merkatuetan. Errenta finkoko baloreen salerosketa: % nominalaren gainean.
Eragiketa bakoitzeko euro gutxienez. Espainiar Zor Publikoaren eragiketei dagokizkionak izan ezik.

Atzerriko merkatuetan. Errenta finkoko baloreen salerosketa: % nominalaren gainean.
Eragiketa bakoitzeko euro gutxienez.

Eragiketatzat hartuko da balore mota bakoitzarengatik egindakoa, jatorria agindu bakarrean izatea gorabehera. Balore mota deritzo ezaugarri berdinak eta eskubide berdinak dauzkan jaulkitzaile baten balore-multzoari. Tarifa hauek euroa ez diren dibisen kanbioengatik egoki diren tarifetatik bereizten dira. Tarifei dagokienez, dagozkion zergak kargatuko dira.

Urrutiko banka eta aplikazio mugikorrek kanalen bidezko operatibari eta Balore-kontuaren (CCV) mugikorrek aplikazioari aplikagarri zaizkion errenta aldakorrek merkatuetako bitartekaritza-tarifak

Eranskin honetan eta Finantza-tresnen Zorroaren kontratuan xedatutako errenta aldakorrek merkatuetako bitartekaritzari dagokizkion tarifen galerarik gabe, jarraian xedatzen dira errenta aldakorrek merkatuetako bitartekaritza-eragiketei (salerosketa) aplikagarri zaizkien tarifak, zeinak Balore-Kontuaren (CCV) titularrak/ek Bankuari egin dizkio(te)n urrutiko banka kanalaren bitartez (Banco Santanderren webgune publikotik edo mugikorrek aplikaziotik) eta honako xehetasunei jarraikiz:

Eranskin honen helburuetarako eragiketatzat joko dira balore negoziagarri nazional edo nazioarteko gainerako erosketa edota salmenta-aginduak (kontuko idazpen gisa adieraziak), bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatzeko onartuak (Balore-burtsak), nazionalak edota atzerrikoak, eragiketa horiek Titularrak egin baditu eta aurrez adierazitako urrutiko bankako kanalen bitartez benetan burutzen badira, eta betiere honako zerrenda honetan jasotzen diren eragiketetako bat bada:

- Burtsan kotizatutako errenta aldakor nazionalak edota atzerrikoko akzioen salmenta edota erosketa
- Burtsan kotizatutako inbertsio-funtsen erosketa edota salmenta (ETFak)
- Burtsan negoziagarriak diren Warrant-en erosketa edota salmenta

Berariaz bazter geratzen dira, tarifa hauei dagokienez, Espainiako Hautabidezko Burtsa Merkatuan negoziatutako erosketak edota salmentak Burtsetan negoziatutako lehentasunezko harpidetza-eskubideenak, Eskuratze Eskaintza Publikoak, Salmenta Eskaintza Publikoak eta errenta finkoko aktiboen gaineko eragiketak.

Aurrekoa kontuan izanda, Bankuak Titularrarengandik jasoko ditu honako tarifak, «Bitartekaritza-eragiketak errenta aldakorrek baloreen merkatuetan» burutzeagatik, zeinak aplikagarri zaizkion

Balore-kontuari (CCV) Finantza-tresnen Zorroaren kontratuari atxikiz, zeinaren Eranskin banaezina den dokumentu hau:

I. Espainiako merkatuetan. Jasotzea, igortzea, burutzea eta likidatzea:

Gehienez euro (€) eskudirutan: euro eragiketa bakoitzeko.

Gutxienez euro (€) eskudirutan eta gehienez euro (€) eskudirutan:
euro eragiketa bakoitzeko.

Gutxienez euro (€) eskudirutan, edo gehiago: % efektiboaren gainean.

II. Atzerriko merkatuetan. Jasotzea, igortzea, burutzea eta likidatzea:

Gehienez euro (€) eskudirutan: euro eragiketa bakoitzeko.

Gutxienez euro (€) eskudirutan, edo gehiago: % efektiboaren gainean.

Gainera, Bankuak Titularrari/ei honakoak jasanaraziko dizkio/e:

- Merkatuek eta konpentsazio- eta likidazio-sistemek jasanarazten dituzten tasak eta kanonak.
- Posta, telefax, gax eta Swift gastuak, halakorik izanez gero.
- Euroa ez diren dibisen kanbioengatik egoki diren tarifak.

Egoki diren tarifei dagokienez, dagozkion zergak kargatuko dira.

Hemen itundutako komizioetaz gain, inbertsio-produktuei dagokienez titularrak agindutako eragiketa zehatzek Bankuak Bezeroari/ei emandako Baloreen Merkatuko zerbitzu eta operazioen gehienezko tarifen Liburuxka informatiboan zehaztutako komizio eta gastuak sortuko dituzte. Liburuxka eskuragarri dago Bankuaren webgunean: www.bancosantander.es/tablon-anuncios.

Titularrak/ek eta Bankuak dokumentu hau goiburuan adierazitako data eta lekuan onartu eta formalizatzen dute, zeina eman egiten den, alderdi bakoitzak kopia bana jasotzen duelarik.

BANCO SANTANDER, S.A.

Ahalordez

**FINANTZA-TRESNEN
TITULARRA(K)**

ZORROAREN

JAUNA/ANDREA

JAUNA/ANDREA

**EUROTAN/DIBISATAN
KONTUAREN TITULARRA(K)(*)**

LOTETSITAKO

()Gogorarazten da erabilpen-erregimen bereizgabe edo solidarioan dauden eurotako edo beste dibisaren bateko lotetsitako kontuetako titularrak Baloreen zaintza eta administrazioko Kontratuko titularren desberdinak badira, horietako edozeinek dokumentu hau sinatu beharko duela.*

Gogorarazten da eurotako edo beste edozein dibisako lotetsitako edozein kontuko erabilpen-erregimena mankomunatua edo baterakoa bada, dokumentu hau titular guztiek sinatu beharko dutela.